

Katakrak argitaletxean lizentzia askeen aldeko apustua egin dugu, horregatik kopiatu eta zabal ditzakezu gure liburu gehienak. Lizentzia hauek kultura zabaltzeko tresna onena dela uste dugun arren, tamalez, gure liburu guztiek ez daukate Creative Commons lizentzia, nahiz eta gehienek hala duten.

Gaur egun, teknologien garapenari esker fitxategi digitalen kopia pribatuak egitearen kostua doakoa da, horrek kulturen irisbide demokratikoan aurrerapen handia ekar dezake.

Halere, liburuak digitalki doan egon daitezen kostu handia izan dute aurretik. Lagun askoren lana dago atzean eta diru inbertsioa (eskubideen erosketa, itzulpena, diseinua, make-ta lanak eta edizioa). Horregatik, gure testuak libreki eskuragai egon daitezen laguntzeko emaitza bat egin dezazun nahi genuke.

Vera Zasulitx
Karl Marx

ERRUSIAKO GUTUNAK

Azken Marx, landa-komuna eta ezinezko iraultzak

Itzulpena: Jone Gartzia
Hitzaurrea: Montserrat Galcerán



Vera Zasulitx eta Karl Marx

ERRUSIAKO GUTUNAK

*Azken Marx, landa-komuna
eta ezinezko iraultzak*

Vera Zasulitx eta Karl Marx

ERRUSIAKO GUTUNAK

*Azken Marx, landa-komuna
eta ezinezko iraultzak*

Hitzaurrea: Montserrat Galcerán Huguet

Itzulpena: Jone Gartzia Gerra

Jatorrizko izenburuak (1881): *K. Marx y la comuna agraria rusa. La carta a Vera Zasulich y los borradores que la acompañan; Lettres de Marx à Véra Zassoulitch; Lettre à l'éditeur des Отечественные записки; Préface à l'édition russe du Manifeste du Parti communiste de 1882.*

Egilea: Vera Zasulitx, Karl Marx, Friedrich Engels

Jatorrizko eskubideak: Domeinu publikoa

Hitzaurrea: Montserrat Galcerán Huguet

Itzulpena: Jone Gartzia Gerra

Barruko irudia: *Die Bombe* aldizkari satirikoaren 1878ko apirilaren 21eko azala

Diseinua: Koldo Atxaga Arnedo

Lehenengo edizioa: 2025eko urria

Edizioa eta maketazioa: **Katakrak Liburuak**

Kale Nagusia 54-56

31001 Iruñea

argitaletxea@katakrak.net

www.katakrak.net

@katakrak54



Liburu honek Creative Commons lizentzia bat dauka. Aitortu-EzKomertziala-Lan EratorririkGabe 4.0. Nazioartekoa. Askatasuna duzu lan hau kopiatu, zabaltu eta jendartean erakusteko beti ere asmo komertzialik gabe. Obra honetatik ezin da beste ezein lan eratorri.

ISBN: 978-84-10316-18-8

ISNI: 0000 0005 1330 6065

Lege gordailua: NA 2001-2025

Inprimaketa: Alzate Grafikak

AURKIBIDEA

ARGITALETXEAREN OHARRA	11
HITZAURREA	33
VERA ZASULITXEN GENEVATIK KARL MARXI ZUZENDUTAKO GUTUNA	
1881eko otsailaren 16a	53
KARL MARXEN GUTUN PROIEKTUAK	
Bigarren zirriborroa	59
Lehen zirriborroa	67
Hirugarren zirriborroa	85
Laugarren zirriborroa	95
KARL MARXEK VERA ZASULITXI BIDALITAKO GUTUNA	
1881eko martxoaren otxoa	97
OTETXESTVENNIE ZAPISKY ALDIZKARIAREN ERREDAKZIOARI GUTUNA	
Karl Marx	99
ALDERDI KOMUNISTAREN MANIFESTUAREN BIGARREN EDIZIO ERRUSIARRAREN HITZAURREA	
Karl Marx eta Friedrich Engels	105





ARGITALETXEAREN OHARRA **TRENAK, PERIFERIAK ETA IRAULTZA**

2025. urtearen hondarrean gaudelarik, Vera Zasulitx-ek, Karl Marx-ek eta Friedrich Engels-ek 1878 eta 1882 artean idatzi zituzten hiru gutun, lau gutun-zirriborro eta hitzaurre bat dakartzan liburu hau osatu dugu. Gainera, zortzi pieza horiei 2025ean Montserrat Galceránek beren beregi idatzitako hitzaurre bat gehitu diogu. Baina zer dela eta liburu hau? Badu historiaz haragoko interesik?

Baietz uste dugu. Batetik, ilustrazioaren goraldia eta burgesiaren hegemonia erabatekoak ziren garaitik zeharo asumitu dugu gure hirien zentraltasuna, hala ekonomian nola kulturean, baina baita politika askatzailean ere. Horregatik, eta oro har, mugimendu askatzaileetan sakon mespretxatu izan dira —eta mespretxatzen dira— landa-eremuko dinamikak. Aldi berean, duela hiru mendetik hona, landa-eremuko exodoa erabatekoa da, munduko eremu asko biztanleriarik gabe geratzen ari dira (berriz agerian geratu da Europako azken suteetan), eta horrek naturaren ustiaketa aldatu du: kapitala hiltzat ematen ari da mendiak,

landak eta itsasoak, eta parke fotovoltaiko erraldoiak eta parke eolikoak eraikitzen ari da horietan.

Liburu hau gutun-truke batekin hasten da: Vera Zasulitx militante populistak Karl Marx filosofo eta iraultzaile komunista ezagunari idatzi zion, eta Marxek erantzun. Truke horrek funtsezko zenbait eztabaida ireki zituen. Galdera zaharrak eta berriak ekarri zituen: zergatik izan zuten Marxek eta Engelsek industrializazioarekiko lilura? Nor ziren Errusiako XIX. mendeko populistak? Nor zen Vera Zasulitx? Zer harreman izan zuten Marxek eta Engelsek beren garaiko errusiar iraultzaileekin?

Liburu hau osatzen aritu garen hilabeteotan, gai honen inguruko bi liburu mardul argitaratu dira, bata gazteleraz eta bestea frantsesez, haren gaurkotasunaren adierazgarri.¹

Industrializazioaren lilura

1917ko iraultza trenen iraultza bat da. Historiak metal hotzaren garrasiekin egiten du aurrera. Tsarraren gurgildun jauregia, betirako bazterreraren desbideratua; Leninen bagoi zigilatu aberrigabea; Trotskiren tren blindatua; Armada Gorriaren propagandarako trenak; gerra zibileko tropen garraioa. Etorrian zetozen trenak, zuhaitzen artean bide egiten zutenak, ilunpetik azaleratzen zirenak.

Iraultzak, Marxek hala esan zuen, historiaren lokomotorrak dira. Urrikoa hasi eta aste gutxira, haxe idatzi zuen Leninek bere buruari egindako ohar batean: «Jarri lokomotorra abiada bizian eta mantendu trenbidean».

China Mieville

1 Besteak beste, hauek argitaratu dira: Manuel Corbera Millánen *La comuna rural rusa. ¿Una vía campesina alternativa al socialismo?* (Sylone & Viento Sur 2025), eta Michael Löwy eta Paul Guillaibert-en *Marx narodnik, Les populistes russes, le communisme et l'avenir de la révolution* (L'échappée 2025).

Marxek 1850eko *Klase borrokak Frantzia*n hartan aipatu zuen iraultzak zirela historiaren lokomotorrak.² Metafora hori behin eta berriro erabili da duela mende eta erditik. Aipamen hura ez zen hutsala, 1848an Europan zehar jazo ziren iraultzek bat egin baitzuten kontinente osoan eraikitzen ari ziren trenen azpiegiturekin. *Manifestu komunistan* (1848) behin baino gehiagotan aipatzen dute trena, baita *Kapitalan* ere (1867).

1830ean eraiki zen Liverpoolen eta Manchesterren arteko trenbidea, eta, hogeitaz urtean, 160 kilometroko bide hura ia 10.000 kilometroko azpiegitura bat izatera pasatu zen. Trenak mundua aldatu zuen: bizimoduak, ogibideak, mugikortasuna, arte plastikoak, musika.

Burgesiarekiko eta kapitalismoarekiko mirespenez, paper iraultzailea esleitu zioten Marxek eta Engelsek une hartan:

Industria handiak mundu mailako merkatua sortu zuen, Amerikaren aurkikuntzak jadanik prestatua zuena. Merkatu globalak bulkada neurtezina eman zien merkataritzari, nabigazioari eta lehorreko komunikabideei. Horiek, bestalde, eragina izan zuten industriaren hedapenean, eta, neurri berean, industria, merkataritza, nabigazioa, trenbideak hedatu ziren, eta neurri berean garatzen zen burgesia bera, gehitzen ziren haren kapitalak, eta bigarren mailan uzten zituen Erdi Arotik ondarean hartutako klaseak.

Alegia:

Burgesiak, mundu mailako merkatua ustiatzean, izaera kosmopolita ematen die herrialde guztietako produkzioari eta kontsumoari.

2 Enzo Traverso-k jasotzen du, *Revolution. An Intellectual History* (2021) liburuan.

Beraz, burgesiak landa-eremua menperatzea zuen helburu:

Burgesiak hirien agintepEAN ezarri du landa-eremua. Hiri eskergak sortu ditu, neurri handian gehitu du hirietako biztanleria landa-eremukOaren aldean, eta, hala, biztanleriaren parte esanguratsu bat landa-bizitzaren ergelkeriatik libratu du. Eta landa-eremua hiriaren mende ezarri duen bezala, herrialde barbaro eta erdi-barbaroak zibilizatuen mende jarri ditu, populu nekazariak populu burgesen mende, Ekialdea Mendebaldearen mende.

Trena zen mugarik gabeko hazkunde eta zabalpen horren tresna nabarmenetako bat, eta Marx eta Engels gazteek miragarritzat jotzen zuten hamarkada horietan burgesek egindako lana, merkatuei emandako zabalpena. Mundu mailako merkatu baten sorrera Egiptoko piramideen mailakoa iruditzen zitzairen, katedral gotikoak baino garrantzitsuagoa.

Marxek pasioz bizi zuen gizarte industrialaren zabalkundea, eta gizarte sozialista bat eraiki aurreko ezinbesteko fase gisa irudikatu zuen ia bizitza osoan. Hipotesi hori zalantzan jartzen hasi zen, hain zuzen, bere lanak errusiera itzultzen zituen Nikolai Danielson-ekin solastatzen zenean, baina, bereziki, Vera Zasulitxek gutuna idatzi zionean.

Egia da gutun-truke horien aurretik ere, are Kapitalan bertan, Marxek trenaren eraikuntzari lotutako istripuak salatzen dituela, baita eraikuntza-lan horiek trenbideetako langileak nola esplotatzen zituzten. Gainera, lokomotorrak ez ziren soilik positiboki ala neutralki aipatzen: haiei erreferentzia egitean, «muntro mekanikoak» zirela esaten zen, ala «deabruaren indarra» zutela.

Halere, Traversok aipatzen du Marxek, luditen aurka egin ez bazuen ere (erreakzionarioek egiten zu-

telako haien kontra), iraganaren ordezkari gisa ikusten zituela, ez etorkizunekoak balira bezala. 1963ko *Ingalaterrako langile klasearen formazioa* liburuan, ordea, Thompson-ek oso bestela irudikatu zituen luditak: komunitate berdinzaleak zituen gizarte baten amil-tzearekin lotu zituen. Alegia, ludismoa ez zela «protesta itsu bat», ezta sindikalismo «primitibo» bat ere. Haren ustez, bazuten ikuspegia erromantikoa industriaren eta merkatu kapitalismoaren aurrean, baina etorkizuna zuten helburu. Are gehiago, Thompson-ek uste zuen luditak makinak kontra zuten herra ez zela teknologiararen aurkako aurreiritzi batean oinarritzen: lan egiteko modua hobetzen zuten neurrian, onartzen zituzten makinak, haiekin lortu nahi zena nekea eta zapalkuntza gutxitzea bazen. Alabaina, nagusiek soldatak murriztean makinak suntsitzen zituzten, hau da, lana esklabotza-molde bat bilakatzen zenean.

Marxek bere bizitzaren amaieran egindako gogoetak eta ordura arte teknologiarekiko izan zuen gogoberotasunaren apaltzeak ez ziren publikoki eza-gutu, ala ez zitzaien jaramon handiegirik egin, harik eta 1911n David Riazanov-ek zirriborro batzuk aurkitu zituen arte Marxen paperen artean, nahiz eta 1867tik hasi zen Marx teknologia berriekiko ezinbestekotasuna zalantzan jartzen, Haruki Wada-k ikertu eta Marxen testuen bidez azaldu zuen bezala.

Horregatik, deigarria da nola Marxen heriotza gertatu bezain laster haren jarraitzaile batzuk hasi ziren ulertzen «modu kritikoago batean teknologiak eta trenbideek makina zibilizatzailerik gisa zuten onarpena». Rosa Luxemburgek, esaterako, nahiz eta ez zen iritsi Ingalaterrako luditak begi onez ikustera, atzerapen humano eta sozial gisa interpretatu zuen globalizazio ekonomikoaren dinamika. *Kapitalaren akumulazioa*

(1913) liburuan, adibidez, bi atal eskaini zizkion nekazarien ekonomiaren suntsipenari, eta trenbideen eraikuntzak europar kolonietan izan zuen papera nabarmendu zuen: burdinbideak abangoardian eta hondamendia erretagoardian, kapitala da martxaren buru, eta, hura pasatu ostean, suntsiketa unibertsalaren arrastoa geratzen da.

AEBren eraikuntza kolonialean, ezinbestekoak izan ziren burdinbideak, bai Mendebaldeko konkistatzeko bai Ameriketako jatorrizko herriak suntsitzeko. Luxemburgek ere horixe nabarmendu zuen, britainiarrek indarrez eta tokiko populazioaren kontrako sarraski bidez eraiki zutela trena Hego Afrikan:

Burdinbideak eraiki zituzten, kafreak zapaldu zituzten, uitlandersen errebolta antolatu zituzten eta, azkenik, Boer Gerra sortu zuten. Nekazarien ekonomiaren azken ordua iritsi zen.³

Hala eraiki ziren koloniak, indarkeriaren bidez, eta hala iritsi zen trena mundura, ez soilik naturaren gainetik, baizik eta baita tokiko jendearen kontra ere:

Salgaien ekonomiaren martxa garailea garraio modernoan eraikuntza bikainekin hasten da kasu gehienetan, hala nola burdinbideak —zeinek jatorrizko basoak gurutzatzen dituzten eta tunelen bidez mendiak zeharkatzen—, basamortuak lotzen dituzten kable telegrafikoak eta porturik urrutikoetan lehorreratzen diren transatlantikoak. Baina horiek guztiak ilusio hutsez baino ez dira «konkista baketsuak».

Gaur egun ere, turbokapitalistetatik hasita kapitalismo berdearen defendatzaileetara, dilema moralia pertsonal bat jaurtitzen da sarritan: ez al gara jabetzen gure «garapen»-mailari eusteko ezinbestekoa dela garraio-azpiegiturak biderkatzea, mendi eta itsasoak

3 Rosa Luxemburg, *The Accumulation of Capital*, Routledge & Kegan Paul, 2003 Londres.

haize-errotaz jostea, energia nuklearrera itzultzea, abeltzaintza intentsiboaren alde apustu egitea eta lurrak kutsatzea? Eta horrekin bat egiten ez duenari esaten zaio gizartea amiltzea nahi duela.

Nor ote zen Vera Zasulitx?

1878ko otsailaren 24an, hogeita zortzi urteko Vera Zasulitx idazle eta iraultzailea Trepov jeneralaren bulegora joan zen eta gelan zeuden guztien aurrean tiro egin zion. Jenerala ez zen hil, baina lurrera erori zen ziplo, eta Zasulitx atxilotu egin zuten.

Garaiko Europako prentsa ilustratu guztian marraztu zuten eszena hura: jende xehearen aurkako errepresioa gidatzen zuen gizonaren aurkako ekintza bat izan zen, inolako sarerik eta babes-talderik gabe egina. Historialariek maiz aipatzen dute hura izan zela 1917ko otsaileko eta urriko iraultzen zikloaren hasiera (martxoaren 8ko eta azaroaren 7ko iraultzak, egutegi gregorianoaren arabera).

Baina nor zen jeneral torturatzailleari bere kabuz eraso zion neskata nihilista hura? Zein zen haren posizio politikoa? Militatu ote zuen erakunderen baitan? Zer harreman zuen garaiko Errusiako zirkulu iraultzaileekin? Eta mundukoekin? Eta zer lotura du XIX. mendeko Errusiako matxinadetako ikono hark Marxekin?

San Petersburgoko gobernadore zelarik, Trepov jeneralak Alexei Bogoliubov preso politikoa jipoitu zuen, ez baitzuen txanoa erantzi jenerala aurrean zegoela.

Zigor hark jende asko sumindu zuen, eta Errusia hegoaldeko sei gizonez osatutako talde bat Trepov hiltzen saiatu zen. Vera Zasulitxek, parte hartzen zuen taldea babesteko asmoz, bakarkako ekintza bat

egin zuen. 193 iraultzaileen aurkako epaiketa bukatu arte⁴ itxaron zuen. Jendaurrean egin zuen ekintza Zasulitxek eta, hortik aurrera, iraultzaileak indarkeria erabiltzen hasiko ziren indarkeriari aurre egiteko. Ekintza hura Masha Kolenkina lagunarekin koordinatu zuen Zasulitxek. Batak Trepov hilko zuen, eta besteak Zhelikovskiren aurkako atentatua egingo zuen, 193en epaiketako fiskala bera. Baina Kolenkinak ez zuen ekintza burutu.

Zasulitx familia pobretu batean jaio zen, Mikhailovka-n (Lugansk, orduko Errusian). Haren amak azienda txiki bat jaso zuen oinordetzan, eta aita nobleziatik zetorren armadako kapitain bat zen. Aita alkoholikoa zen, eta Zasulitxek hiru urte zituenean hil zen. Orduan amak hiru alabak beste senide batzuekin bizitzera bidali zituen. Vera zen gazteena, baina hirurak aritu ziren mugimendu politiko erradikaletan.

Verak senide aberats batzuenen bukatu zuen, Biakolovo-n. Hamazazpi urterekin ikasketak bukatu zituen, eta San Petersburgora joan zen bulego-lanak egitera. 1870eko hamarkadan, mugimendu erradikala bere gorenean zegoen, eta Zasulitxek segituan egin zuen harekin bat. Memorieta kontatzen duenez, iraultzarekiko garra Kondrati Ryleev-en Nalivaikoren aitortza poemak piztu zion. Poema hartan, Ryleev 1825eko iraultza dezenbristan gertatu zen Ukrainiako matxinadaz jarduten zuen. Ryleev beste lau iraultzaileekin batera urkatu zuten 1826ko uztailean.

Garai hartan, koadernaketa-talde batean sartu zen, eta langileei irakurtzen irakasten hasi zen. Hala

4 193en aurkako epaiketak 1877-1878an jazo ziren ikasle sozialisten eta bestelako iraultzaile populisten aurka. Tsarren Errusiako historiako epaiketa politiko handiena izan zen. Jatorrian 1874ko udan milaka militante populista landa eremura joan ziren nekazariak heztera, hezkuntzaren bidez politikoki emantzipatuko zirenen itxaropenarekin.

ezagutu zuen Sergei Netxaiev iraultzaile ezaguna. Netxaieven gertukoa izateagatik atxilotu zuten 1869an, eta lau urtez egon zen kartzelan eta erbestean.

Erbestealdian konpromiso handiko iraultzaile bilakatu zen. Kiev-eko matxinoekin bat egin zuen, Errusia hegoaldean zegoen Bakunin-en jarraitzaileekin. Hurrengo urteetan inprenta-lan klandestinoak egin zituen erakunde populistetarako.

Trepoven kontrako ekintzak egin zuen jendau-rean ezagun, baina ordurako iraultzaile errespetatua zen ingurukoen artean. Kieveko matxinoen taldean Zasulitx zen esperientzia iraultzailea izandako bakarra. Baina haren kideek, ekintzarako zuen gaitasunaz gain, «garapen intelektuala eta, bereziki, kultua izatea nabarmentzen zuten».⁵

Zasulitx Marx interesatzen zitzaion populista izatetik marxista izatera pasa zen. Lanaren emantzipazioa (1883) izan zen aurreneko talde marxista hura eta 1890tik aurrera, Engelsekin harremanean, alderdi sozialdemokrata izango zenaren oinarrietako bat osatu zuten (Plekhanov eta Alexrod ere talde hartan zeuden).

Errusiako Alderdi Sozialdemokrata Langileak bitan banatu zenean mentxebikeekin egin zuen bat. Deigarria da Nadezhda Krupskaiaren *Leninen oroitzapena* liburuan Vera Zasulitxek duen presentzia. 1901-1902 urteetan Lenin Munichen egon zeneko atalean sarritan aipatzen ditu Zasulitx eta Lanaren emantzipazioa taldekoekin Leninek izan zituen topaketak. Halere, 1904tik aurrera Zasulitxek ez zuen bat egin Leninekin. 1917ko iraultza gertatu zenerako, zaharra zen eta bakartuta zegoen, eta, aldi berean, egoera paradoxiko batean zegoen: Marxekin kontaktua izan zuen

5 Barbara Alpern Engel, Clifford, N. Rosenthal, *Cinco mujeres contra el Zar*, Dirección única, 2017 Bartzelona. 137-184.or.

belaunaldikoa zen, Marxen lanak Errusian zabaldu zituenekoa, eta, halere, bazterrean geratu zen haren lan militanteari esker sortu zen egoera historiko hartan.

Zasulitxek memoriak idatzi zituen, eta, zailantzarik gabe, XIX. mendeko Europako iraultzaile nabarmenen parnasoko kide baten bizitza jasotzen da bertan.

Marx eta kolonialismoa

Montserrat Galceránek akademiako zenbait sektore antimarxistatatik egiten den kritikari erantzun zion 2019an *Viento Sur* aldizkarian. Ohikoa da Marxi eurozentrismoa egotea; ordea, Galceránek nabarmendu zuenez, Marxen obra ezinbesteko zutabe bat izan da XX. mendeko mugimendu deskolonizatzaile askotako pentsalari nabarmenentzat (Amílcar Cabral, Léopold Sédar Senghor, Frantz Fanon edo gaur egungo Álvaro García Linera). Kritika horren iturri nagusia Edward Said-en *Orientalism* testua da. Saidek eurozentrikotzat jotzen du Marx, haren garaiko gainontzeko pentsalariak bezalatsu.

Galceránek argi dio: «Marxen pentsamenduan ez dago jarrera arrazistarik, baina bada nolabaiteko konfiantza falta bat jatorrizko herrien borroka- eta erresistentzia-gaitasunarekiko; gainera, ez du haien jokamoldea ulertzen».

Saiden kritikaren oinarrian Marxek 1857-1858 bitarteko Indiako altxamenduei buruz idatzitako testuak daude, zeinak *New-York Daily Tribunen* argitaratu baitziren. Diru-truke idatzi zituen, bitartean *Kapitala* idatzi ahal izateko; testuinguru horretan armada britainiar kolonialaren aurka soldadu indiarrek egin zuten matxinada landu zuen. 1848ko Europako iraultzen porrotaren ostean, Marxek iraultzen eta borroken ziklo

berri bat espero zuen. Baina iraultza horiek ez ziren jazo, eta non eta Indian, herri kolonial batean, iraultza lehertu zen, «eta haren eragileak soldaduz, nekazariz, merkatari txikiz eta nekazari lurjabez osatutako saldoak izan ziren. Konfrontazioa hain izan zen gogorra, ezen larri zauritua utzi baitzuen jaiotzen ari zen Britainiar inperioa.»

Marxek «aurrepolitiko» gisa ulertu zuen matxinada hura. Matxinoen zilegitasuna zalantzan jarri gabe, 1853ko ekainaren 10eko artikuluko azken atalean bere buruari galdetzen zion ea kolonialismo hori gabe, Ingalaterraren «krimen horiek guztiak gabe», iraultza hura martxan jarriko ote litzatekeen. Hala ulertzen zuen Marxek: Ingalaterrak kapitalismoa zekarren Hindustanera, eta kapitalismo hori ezarri ostean gertatu ahal izango zen bilakaera antikapitalista. Hori zen, Galceránen aburuz, Marxen muga.

Eta, halere, Galceránek nabarmentzen duenez, testu horiek 1850etan idatzi zituen Marxek, baina 1870etatik aurrera, Vera Zasulitxen gutunetara, Marx zaharra bestelako irudi bat, akaso bide alternatibo bat, ikusten hasiko zen: «Etorkizuna aurreko testuetan baino askoz modu irekiagoetan ikusi zuen».⁶ Aukera bat besterik ez zen, baina Marx ordurako kritikoagoa zen kapitalismoaren garapenak zekartzan onurekin, eta askoz modu irekiagoan ulertzen zuen etorkizuna: etorkizuneko iraultzak gerta zitezkeen aspaldiko egitura sozialen garapen alternatiboetan oinarrituta, egitura horietan kolektiboa gailentzen zelako eta horrek ondorio antikapitalistak ekar zitzakeelako.

6 Galcerán, Montserrat, *Marxismo y estudios coloniales: críticas y contracríticas*, Viento Sur 165, 2019ko abuztua. 72. or.

In *Theory* liburuan, Aijaz Ahmad-ek gogor erantzun zion Edward Saidek zabaldutako Marx eurozentrikoaren ideari. Ahmadek zioenez, *Orientalismek* Marxen 1950etako pasarte soil bat jasotzen zuen, eta desitxuratu egiten zuen Marxek garai hartan ere Indiari buruz esandakoak. Marxen irakurketa konplexua zen, eta, nahiz eta zenbait prozesu historiko ez zituen zehatz ulertu, ez zen zilegi haietan eurozentrismoa ikustea ezinbestean.

Narodnikiak: populistak

Giza askapenaren historia, baita klase-borroka ere, huts eta porrot egindako ildo eta proiektu politikoen bilduma luze bat da. XIX. mendeko Errusiak oso ezaugarri sozial, ekonomiko eta politiko bereziak zituen: inperio bat zen, esklabotza-molde bat existitzen zen oraindik, ez zegoen apenas ez industriarik ez burgesiarik, noblezia absolutistak zorrotz agintzen zuen (burgesiarik ez zegoenez, ez zen piztu Europako gainontzeko lurraldeetan XVIII. mendetik aurrera gertatu ziren iraultzen antzekorik).

Testuinguru hartan sortu zen populisten mugimendua. Arlotti-ren (2014) aburuz, Errusiako pentsamenduaren historialariek hiru zentzutan erabiltzen dute «populismo» hitza. Batetik, «Errusiako landa-eremuko sozialismo utopikoari» egiten dio erreferentzia; bestetik, marxismoa Errusian sartu aurreko sozialistak izendatzeko erabiltzen da; azkenik, «herriaren» benetako ideien eta sentimenduen defendatzaileak adierazteko ere baliatzen da.

Horregatik, Manuel Corbera Millánek nabarmentzen duen bezala, gaur egun populista gisa deskribatzen ditugu Aleksandr Herzen eta Nikolai Txernixevski bezalako egileak; aurrenekoa liberala zen funtsean, eta

bigarrenak sozialistatzat zuen bere burua. Edonola ere, egia da bai bi pertsonaia horiek bai XIX. mende osoan zehar Errusian iraultza egin nahi izan zuten guztiek zutela herria askatzeko nahia eta herria zutela subjektutzat. Gainera, errusieraz hitz bera erabiltzen da *herri* eta nazio esateko: *narod*.

Narodnikien mugimendua nolabaiteko landa-sozialismo bat izan zen, eta erakunde ezberdinak izan zituen. Aurrenekoa 1960etan sortu zen, eta Zemlia i Volia deitu zen (Lurra eta askatasuna). Sasiko talde bat izan zen, eta garai hartako intelektual askok hantxe kokatu zuten beren burua, edo haren eragin handia izan zuten (aurrez aipatutako Herzen eta Txernixevskiz gain, Sergei Netxaiev iraultzailea eta Georgi Plekhanov, gerora iraultzaile marxista izango zena). Narodnikien marko politikoaren arabera, nekazariak ziren klase iraultzailea, Tsarra garaituko zuena, eta, haien aburuz, landa-eremuko komuna zen sozialismoaren hazia.

1870eko hamarkadaren erdialdean, hirietako gazteak landa-eremuan *kulakek* (nekazari lurjabeek) lurgabeekin zituzten gatazkez jabetzen hasi ziren, eta hala sortu zen «herrira joateko» joera. Kasu batzuetan fisikoki, baina, oro har, politikoki. Alegia, hirietako intelektual iraultzaileak herriaren zerbitzura jarri ziren, nekazari lurgabeen zerbitzura. Berehala hasi zen Tsarraren polizia sekretuaren errepresioa, eta, erantzun gisa, narodnikiek, nekazari iraultzaileekin batera, matxinada bat egin zuten 1877an. Urte hartan bertan, Marxek hitz hauek idatzi zituen: «Errusiera ikasi dut, Errusiako garapen ekonomikoari buruz iritzi informatu bat izateko, eta azken urteetan gai horren inguruko argitalpen ofizialak eta bestelakoak ikertzen ari naiz». Marcello Musto-k adierazten duenez, Errusiako eraldaketa ikerketa-gai zentral bat izan zen Marxentzat

eta Engelsentzat 1870etatik aurrera. Marxek Txernixevskiren lanak irakurri zituen, figura populista nabarmenetako bat zelako. Haren lan ekonomikoak «bikainak» iruditzen zitzaizkion, eta 1873rako jada idatzi zuen «haren idazki gehienek jakitun» zela; Txernixevskiren zerbait argitaratzeko interesa agertu zuen, «haren bizitzaz eta izaeraz, Mendebaldean interesa sortzeko».

Jakina da Leninen anaia zaharra militante populista zela eta boltxebike zaharrentzat Txernixevski bezalako egile populistak ezinbestekoak izan zirela haien formazioan. Populistetako batzuk marxista bilakatuko ziren, eta populismoaren programaren mugak adieraziko zituzten; beste asko sozialista iraultzaileak izango ziren; eta gutxi batzuk populismoan geratuko ziren. 1917ko iraultza gertatu zenerako epifenomeno bat ziren, eta haren ondoren desagertu egin ziren.

Marx eta Errusiako iraultzaileak

Errusian, Marxen eragin politikoa goiz hasi zen, eta oso garrantzitsua izan zen. *Filosofiaren miseria* lana eta *Ekonomia politikoari kritika* oso arrakastatsuak izan ziren, eta *Kapitalaren* errusierazko itzulpena 1872an argitaratu zen, Marxek alemanezkoa idatzi eta lau urtera. Lan mardul hura itzultzeko, jatorrizkoa argitaratu eta urtebetera Rubloaren Elkarteak sortu zuten, Poljakov editorea buru zela.

Marxi gizakien berezitasunak interesatzen zitzaizkion, eta, lan haren bidez, naturarekin izan zituzten harremanak aztertu zituen. Naturarekiko truke horretan giza kultura sortu zen, eta horrek naturarekin harremanak izateko molde berriak ekarri zituen: geziak eta arkuak, arrantza, suaren erabilera, abereak etxekotzea, buztina lantzea, nekazaritza, baina baita

ere antolatzeko modu berriak, artea, espirituarekiko kezka, zientzia. Aurrerabidea zeharo zegoen ekoizpen-indarrei eta naturari lotua.⁷

Hala, Marxek eta Engelsek egiten zuten irakurketan, jatorrizko komunitateak berdinzaleak eta komunistak ziren, baina jabetza pribatuak eta hark sortzen zituen harremanek desberdintasun sozialak ekarri zituzten eta, azkenean, klaseen arteko talkek historia menderatu zuten.

Topikoak dioenaren aurka, zera adierazi du Donald Sassoon-ek berriki argitaratu duen *Revolutions. A New History* liburuan:

Itxura batean, badirudi iraultzak ez direla gertatzen herrialde ekonomikoki aurreratuenetan, baizik eta aurretik doazenak harrapatu nahian dabiltzanetan. XVII. mendean, Herbehereetako Errepublika Ingalaterra baino aurreratuagoa zegoen; 1789an, Frantzia Ingalaterraren atzetik zihoan; Errusia eta Txina Mendebaldeko herrialdeen atzetik geratzen ari ziren. Halere, orokortze horiek gutxitan izaten dira guztiz baliagarriak. 1781 eta 1782 bitartean iraultza bat izan zen Genevan, eta halaxe deitu zioten hasieratik. Baina Geneva ez zegoen inondik inora ere atzeratuta; bankuen gune garrantzitsu bat zen, eta kalitate handiko erlojugintzaren tokirik garrantzitsuena. Erreboltaren muinean jatorri desberdineko aristokrazien arteko berdintasun-mailan zegoen, hau da, Genevan jaiotakoen eta immigratutakoen artekoan. Matxinadak porrot egin zuen, Frantzia 'iraultzailearen' laguntzarekin, nahiz eta erreformak batzuk ezarri ziren. Geneva Frantziari anexionatu zitzaion 1798an. Napoleonen porrotaren ondoren, herritarrek pentsatu zuten zuhurragoa izango zela Suitzako Konfederazioaren parte bihurtzea. Suitzaren izaera kontserbadorea gorabehera –edo bere egonkortasun ezohikoagatik beharbada–, Suitza errefuxiatuen babesleku bihurtu zen XIX. mendean eta XX. mendearen zati batean era askotako jen-

7 Manuel Corbera Millán, *La comuna rural rusa. ¿Una vía campesina alternativa al socialismo?*, Sylone & Viento Sur, 2025 Madril. 64-71.or.

dearentzat, hala nola Alexander Herzen, Parisko Komunako kideak, anarkistak —Pyotr Kropotkin eta Mikhail Bakunin— eta iraultzaileak —Vera Zasulitxentzat, Georgi Plekhanov eta Vladimir Lenin—.

Hala, Engelsek 1885ean esan bezala Vera Zasulitxi igorritako gutun batean, garai iraultzaileetan ezin da ezer aurreikusi edo iragarri:

Iraultza bat egin izanaz harrotzen direnak beti jabetu dira, biharamunean, ez zutela jakin zertan ari ziren, egindako iraultzak ez zuela, inondik inora, egin nahiko zuketaren antzik. Hegelek historiaren ironia deitzen dio horri, eta pertsonaia historiko gutxik itzurtzen ironia horri. Horra hor Bismarck, bere borondatearen aurkako iraultzailea.

Gutunak: Riazanoven aurkikuntza

1921ean, Riazanov boltxebike zaharrak Moskuko Marx-Engels institutua osatu zuen, eta zuzendaritza-lanetan hasi zen. Erakunde hura hezkuntza-komisariotzaren barruan zegoen, eta Marxen eta Engelsen ahalik eta dokumentu gehien eskuratzea eta antolatzea izan zen haren zeregina, 1931n Riazanov bera eta lankideak arrazoi ideologikoengatik baztertu zituzten arte.

1923tik aurrera, Riazanov Marxen eta Engelsen inguruko ikerketen hitzaldiak eta liburuxkak argitaratzen hasi zen. Eta Riazanov bera izan zen Zasulitxen gutuna eta Marxen zirriborroak aurkitu zituen. Hone-lakontatu zuen:

Marxek Errusiako egoera aztertzean zuen grina eta arreta adierazten dute haren kaieretako oharrek, baina baita Nikolaion-i igorritako gutunek ere, zeinetan herrialdeari buruzko gogoeta arras interesgarriak irakur daitezkeen [...]

Marxek, neurri batean, lan horien balantzea egin nahi zuen *Kapitalaren* hirugarren liburuan, lurraren jabetzaren formak aztertzen dituen horretan, baina, tamalez, ez zuen astirik izan. 1881ean Vera Zasulitxek eskatu zionean berarentzat eta burkideentzat Errusiako landa-eremuko komunaren etorkizunaren inguruko iritzia ematea, Marx segidan hasi zen lanean. Ez dakigu Zasulitxek eta Plekhanovek erantzuna jaso ote zuten, ezetz uste dugu. Zirriborroa topatu dugu. Nabarmena da Marxen lanerako gaitasuna oso ahulduta zegoela. Tatxaz eta zuzenketaz josita dago, eta, ziurrenik, bukatu gabe utzi zuen.

Engelsekin batera, Marxek *Manifestu komunistaren* itzulpen berriarentzako hitzaurrea idatzi ahal izan zuen. Egileek uste zuten Zasulitx zela itzultzailea, baina Plekhanov zen itzulpenaren egilea.

Historiak jokaldi makur bat egin zien Marxi eta Bakunini. Internazionalako atal errusiarreko iraultzaileen artean, Marx kontseilu orokorrerako hautatu zutenetako inor ez zen marxista kontsekuentea. Lopantin salbu, denek utzi zuten iraultzaile profesional izateko karrera, edo, bestela, etsai bilakatu ziren. Alderantziz gertatu zen bakuninista errusiarrekin: Plekhanov, Zasulitx, Alexrod eta Deutsch izan ziren aurreneko errusiar marxistak; haientzat, marxismoa ez zen doktrina ekonomiko bat soilik, iraultzaren aljebra ere bazen.

Riazanovek Marxen eta Engelsen lanen inguruko dibulgazio-liburu bat idatzi zuen. Han zioenez, bai Engelsek bai Marxek «oso gertutik jarraitzen zuten garaiko Errusiako mugimendu iraultzailea [eta] biek ikasi zuten errusiera». Riazanovek dio Marxek Dobrolibov eta Txernixevski bezalako egileak errusieraz irakurtzeko gaitasuna zuela, baina baita Saltikov-Txetxedrine bezalako idazle bereziki zailak ere, eta *Kapitalaren* errusierazko itzulpena ere irakurri zuela. Hagako kongresuaren ostean, Marx gero eta eza-gunagoa zen Errusian ekonomia burgesarren kritiko gisa; une hartako ekonomialari errusiar askorengan izan zuen eragina (Sieber, Ianjul, Kablukov, Kaufman), baina

baita historialarien artean ere (Kovalevski, Lutxitski).⁸ 1865ean, Katxev-ek Ekonomia Politikoaren kritikari *ekarpe-na* liburu ezagunaren hitzaurrea itzuli zuen.

Riazanovek honela kontatu zuen gutunen aurkikuntza:

1911n, Lafargue-ren esku zeuden Marxen paperak ordenatzen ari nintzela, plegu-zortzirenetan idatzitako zenbait gutunekin egin nuen topo. Marxen idazkera txikiarekin, tatxaz beteta, ostean gehitutako lerro ugari zeuzkaten, gero berriz zirrimarratuak eta justaposizio gehiagoz jantziak. Aurrena ordenatu ondoren ulertu nuen zirriborro bat zela, 1881eko otsailaren 16ko gutunari erantzunez Vera Zasulitxi bidaliko zion gutunaren zirriborro bat baino gehiago zirela. Haietako batek 1881eko martxoaren 8ko data zuen, eta pentsatzekoa zen hura izan zela behin betiko erantzuna emateko oinarria.

Orduan Plekhanovi idatzi nion, baina galdetu nionean Marxek Zasulitxen gutunari erantzun ote zion, ezetz esan zidan. Galdera bera egin nion, beste lagun batzuen bidez, Zasulitxi, eta hark ere ezetz esan zidan. Ez dut gogoan, zehazki, ea Axelrodengana ere jo ote nuen. Litekeena da baietz, eta, segur aski, hark ere ezezkoa erantzungo zidan.

Halako batean, oroitu nintzen behin, 1883an Suitzan egonaldi bat egin nuenean, Errusiako nekazarien komunitateei buruzko fantasiazko kontakizun bat entzun nuela, *Osvobozhdenie Truda* [Lanaren emantzipazioa] taldearen eta Marxen artean prestatua. Anekdota guztiz sinesgaitzak entzuten ziren jabetza komunala ukatzen zuen Plekhanoven eta hura defendatzen zuen Marxen artean.

Kalendar narodnoi voli [Herriaren borondatearen egutegia] egunkarian, Marxi buruzko heriotza-oharrean, zera gogoratu zuten:

«Zer gustura ibili zen [Marxen] bere bizitzako azken urtean San Petersburgoko Batzordea [gutun batean Marxek Zasulitxi esan zion bezala], [Marx] liburuxka bat idazten ari zelako bereziki Errusiari buruz, gure nekazarien komuni-

8 Riazanov, *Marx y Engels. Su obra revolucionaria*, Fundación Federico Engels, 2015 Madril. 190-198.or.

tateen eboluzioari buruz, Errusiako sozialistentzat interes nabarmena duen auzi batez».

Zirriborroetan, ordea, Vera Zasulitxi igorritako gutunak 1881eko otsailaren 16ko data zuen. *Egutegian* Marxen bizitzaren «azken urtea» aipatzen da. Plekhanoven eta Zasulitxen ezezko erantzun borobilek oker pentsarazi zidaten, gerora agerian geratu zen bezala, *Egutegian* aipatzen zen gutuna beste arrazoi batengatik izan zitekeela.

[...] 1923ko udan Berlinen nintzen, eta hantxe jakin nuen, Boris Nikolaievskiren eskutik, Alexroden artxibategian Marxen gutun bat aurkitu zutela.

Marxek Zasulitxi igorritako gutun hori zirriborroekin alderatzean, argi geratu zen zirriborroetako baten erreprodukzio bat zela; hain zuzen ere, 1881eko martxoaren 8koarena. Kapitalkaren aipuak soilik falta dira, helbidea eta sinadura. [...]

Berrogei urtez ibili ziren galduta zirriborroak eta erantzuna. Galdera da zergatik Zasulitxek, Plekhanovek eta Alexrodek ez zioten toki handiagoa eman Marxen erantzunari. Riazanovek dio gutun hura jasotzean Alexrod Errumanian zegoela eta Plekhanovek eta Zasulitxek zeharo ahaztu zutela gutun hori jaso izana. Nola ahatz daiteke Marxek bidali dizun gutun bat?

Ez al da egokiagoa interpretazio ia literario bat egitea ahaztura horren inguruan? Zer neurritaraino ez ote zuten nahiago gutun hura idatzi aurreko Marx, populista izatetik marxista izatera pasa ziren Plekhanovek eta Zasulitxek? Alegia, Zasulitxek-eta ez ote zuten gehiago bat egiten Marx hil osteko marxismoarekin eta Engelsek markatutako bidearekin: kapitalismoa iristea onuragarria zen, hori zen bidea eta ez, landa-komuna bezala desagertzeaz zeuden gizarte egiturak.

Zasulitxek Marxi idatzi eta bi urtera, Riazanovek jaso bezala, Vera Zasulitxek *Sozialismo zientifikoaren eboluzioaren errusierazko edizioaren hitzaurrea* idatzi zuen. Esaten zuen, batetik, landa-eremukomuna urtez urte ari zela amiltzen Errusiako nekazarien artean;

eta, bestetik, sozialismoa zabaltzeko, aurrena kapitalismoa zabaldu behar zela.

Bilduma honetako testuak

Aipatu bezala, liburu honek, argitaletxearen ohar hau jasotzeaz gain, Montserrat Galceránen ezinbesteko hitzaurre bat dakar, eta, gainera, honako testu hauek ere biltzen ditu: Vera Zasulitxek Karl Marxi igorritako gutuna; Marxen lau zirriborroak eta Zasulitxi igorri zion gutuna; Otetxestvennie Zapisky aldizkariaren erredakziora bidalitako testua; eta Marxek eta Engelsek 1882ko *Alderdi Komunistaren manifestuari* idatzi zioten bigarren hitzaurrea.

Lan hau argitaratzeko bidean, hemen sartzeko moduko beste testu askorekin egin dugu topo: Teodor Shanin-ek bildumatu zituenak, Maximilien Rubel-ek 1947an idatzitako *Karl Marx eta sozialismo populista* errusiarra eta beste hainbat.

Izan dadila, ordea, eztabaida abiatzeko bilduma bat. Liburu honi esker, nekazaritzako eta politikako ordain asko ekarri ditu Jone Gartziak bere itzulpenean.

Iruñea

2025eko iraila

Iturriak

Agiriano, Mario, *Marx y la comuna rural rusa: usos y abusos*, Hastapenak 6, 2023ko uztaila-abendua.

Corbera Millán, Manuel, *La comuna rural rusa. ¿Una vía campesina alternativa al socialismo?*, Sylone & Viento Sur, 2025 Madril.

Engel, Barbara Alpern; N. Rosenthal, Clifford, *Cinco mujeres contra el Zar*, Dirección única, 2017 Bar-tzelona.

Engels, Friedrich, *Gutuna Vera Zasulitxi*, 1885

Galcerán, Montserrat, *Marxismo y estudios co-loniales: críticas y contracríticas*, Viento Sur 165, 2019ko abuztua.

Löwy, Michael eta Guillibert, Paul, *Marx narodnik, Les populistes russes, le communisme et l'avenir de la révo-lution*, L'échappée, 2025 Paris.

Luxemburg, Rosa, *The Accumulation of Capital*, Routledge & Kegan Paul, 2003 Londres.

Sassoon, Donald, *Revolutions. A New History*, Ver-so, 2025 Londres.

Shanin, Teodor, *Late Marx and the Russian Road. Marx and 'The Peripheries of Capitalism'*, Monthly Review Press, 1983 New York.

Marx, Karl, Engels, Friedrich, *El porvenir de la Co-muna Rusa*, Cuadernos de Pasado y Presente, 90, . 1980 Mexiko.

Musto, Marcello, *The Last Years of Karl Marx, 1881-1883. An Intellectual Biography*, Standford Univer-sity Press, 2020 Standford.

Riazanov, Marx y Engels. *Su obra revolucionaria*, Fundación Federico Engels, 2015 Madril.

Rubel, Maximilien, *Karl Marx et le socialisme po-puliste russe*, La Revue Socialiste 11, 1947eko maiatza.

HITZAURREA

KARL MARX ETA LANDA-KOMUNA VERA ZASULITXI ZUZENDUTAKO GUTUNA ETA ZIRRIBORROAK

Testu hauen euskarazko argitalpena goraipatu besterik ezin dut egin, ez soilik Karl Marxek Vera Zasulitxi zuzendutako gutunarena, baita haren aurreko zirriborro guztiena ere Marxen azken urteetako gogoe-tak jasotzen dituzten dokumentu baliotsuak baitira. Bere lan egiteko modua eta bere ikuspegi intelektuala-ren zintzotasuna dokumentatzen dute; izan ere, Marx ez da ausartzen erantzun kategoriko bat ematera arazo baten alderdi desberdinak aztertu gabe. Eskuartean dugun kasu honetan ez du erantzun hori aurkitzen, baina gaiari heltzeko bide ezberdinek balizko erantzunaren ziurgabetasuna agerian uzten dute.

Irakurleak erraz ikusiko duen bezala, testu konplexuak eta partzialak dira: , betiko soluziobidearen oinarri gisa balio ez duten zirriborroak eta ondorio hori jasotzen duten pare bat gutun. Tradizio marxista-ren aro luze batean ezezagunak izan ziren arren, gaur egun nolabaiteko ospea dute, marxismo klasikoaren eskematismoa erlatibizatzen dutelako, bertsio sozial-demokratan zein marxista-leninistan (estalinistan),

eta korronte anarkisten hurbilpena ahalbidetzen dute. Marxista dekolonialek edo postkolonialek harrera be-roa egin diete ere bai, Marxen testu hauetan ikusten baitute Historiak norabide bakarra duela ezeztatzen duen froga eta kontzepzio historiko multilinealaren aukera, eskematismo unilineala hobesten zuen tra-dizio europarraren kontra. Horregatik guztiagatik, gure garaiko hainbat egilek, Carlos Taibok, Carlos Fer-nandez Liria eta Paco Fernandez Bueyk kasu, eta gure mugetatik kanpoko beste hainbestek, hala nola Marcelo Mustok, Néstor Kohenek eta Alvaro García Linerak, Kevin B. Anderson ahaztu gabe, testu hauek berreskuratzeko lan handia egin dute.⁹ Gure herrian Manuel Sacristán izan zen zirriborro ospetsuei buruz hitz egin zuen lehenengoetarikoa, 1983an Compluten-se Unibertsitatean eman zuen hitzaldi batean, Marxen heriotzaren mendeurrenaren harira.

Esan bezala, gutunak ez dio behin betiko eran-tzunik ematen Vera Zasulitxek egindako galderari: ez du zehazten Errusiako landa-komuna —*mir* delakoa [mir-ek errusieraz komuna esan nahi du]— desegitea halabeharrezko baldintza zen Errusian iraultza izateko ala, aitzitik, bizirik iraun zezakeen eta eredu berri bat izango zuen gizarte baten oinarria eratu. Horrenbes-tez, ez du esaten Errusiako populistek haren desegitea bultzatu behar zuten ala haren iraupenaren alde egin. Marxek 1881eko martxoaren 8an idatzitako erantzun gutunak honakoa dio: «Kapitala lanean aurkeztutako analisiak, berez, ez du Errusiako komunaren bizita-

9 Carlos Fernandez Liria, *El orden del capital*, Madril, Akal, 2010; Paco Fernandez Buey, *Marx sin ismos*, Bartzelona, El Viejo topo, 1998; Néstor Kohén, *Karl Marx. Comunidad, nacionalismos y capital*, Bartzelona, Bellaterra, 2021; García Linera, *Forma valor y forma comunidad*, Madril, Akal, 2015; Kevin B. Anderson, *Marx en los márgenes*, Bartzelona, Verso, 2024.

sunaren aldeko zein kontrako arrazoirik ematen».¹⁰ Esan dezakeena da, eta kategorikoki baieztatzen du, berak ez duela eskema suprahistorikorik marraztu eta bilakaera historikoaren berezitasunak —hori litzateke landa-komunaren kasua— historia zehatzean arakatu behar direla. Marxek zirriborratutako feudalismotik kapitalismorako trantsizioa Europako historiara mugatzen da eta ez litzateke muga horietatik harago zabaltu behar. Baieztapen hori bere horretan kolpe gogorra da materialismo historikoaren ekoizpen moduen sekuentzialitatea babesten zuten eskuliburuetan oinarritutako bertsioen aurka. Eta bat dator Marxek garai berean egindako beste adierazpen batzuekin, adibidez, bera ez zela marxista esan zuenekoa.¹¹

Baina badira beste alderdi batzuk ere. Ene iritziz, nabarmendu beharreko lehenengoa bere gogoetaren funtsa da; hau da, komunitate batek materialki irauteko dituen aukeren inguruko galdera, *berezko bizitasuna* esaten dion hori, esan nahi baita, zerk ahalbidetzen duen gizarte/komunitate batek denboran irautea eta erreproduzitzea. Antzinako komunitateetan bizirau-pena bi faktoreekin zegoen lotuta: batetik, lurraren jabetza komunarekin, baliabide gehienen oinarria baita; eta, bestetik, baliabide horiek jabetzeko, era-

10 Vera Zasulitxi zuzendutako gutuna, liburu honetan jasoa. [The analysis in *Capital* therefore provides no reasons either for or against the vitality of the Russian commune.], ingelesezko testuan, Marx-Zasulich Correspondence February/March 1881. Jatorrizko testua: *Marx-Engels Werke (MEW)*, 19, 242-43. or.

11 Engelsek 1882ko azaroaren 2/3an Eduard Bernsteini zuzendutako gutun batean aipatutako adierazpena, *L'Égalité* egunkariko erredaktore Lafargue, Guesde eta Deville «marxista» frantsesei buruz. Marxek hitz horiekin balioa kendu nahi zion marxismoaren bulgarizazioari hasiera ematen zion irakurketari, ostera Kautskyk berak jarraituko zuena bere joera positibistarekin, ideologizazioarekin eta dialektikaren alboratzearekin. *Eduard Bernsteins Briefwechsel mit Friedrich Engels* [Bernsteinekin korrespondentzia], Assen, Van Gorcum, 1970, 154.or.

biltzeko eta erreproduzitzeko arauak ezartzearekin. Denboran irauteko gaitasun horrek talka egiten du harreman kapitalisten indar disolbatzailearekin eta «indibidualtasunaren» nagusitasunarekin, jabetza, lana eta kontsumoa barne, komunitatearen nolabaiteko desagerpena dakartelako. Izan ere, Marxek behin eta berriro azpimarratu zuen gizarte kapitalistaren funtsean «ekoizleen eta ekoizpen-bitartekoen bereizte erradikala» zegoela,¹² hau da, ekoizpen-bitartekoak, lurra barne, ez direla hura landu eta hartaz bizi diren pertsonena —zaintzeko eta mantentzeko interesa izan lezaketen horiena—, baizik eta kanpotar jabeenak, zeinek ez duten beren jabetzekin horien jabe izateaz gain beste loturarik, beren diru-etekina handitzeko hura erosteko eta saltzeko gaitasunaz besterik ez. Bizitza ekonomikoaren jarraitutasuna ahalbidetzen duen ekoizleen eta ekoizpen-bitartekoen «topaketa» eta konbinazioa enpresa kapitalisten esparruan gertatzen da, eta horiek, era berean, irabazi-asmoak gobernatutako entitate pribatuak dira. Adam Smithen duela bi mende adierazi zuen bezala, gizarte kapitalistaren iraunkortasuna berekoikeria pribatuaren errendimendu kolektiboan oinarritzen da; mendeetan zehar izandako dimentsio kolektibo/komunitarioaren ezabapen horrek ez du eragotzi ingurune naturalarentzat zein jendarteentzat sakonki suntsitzailea den sistema ekonomiko bat sortzea.

12 Esaldi hau lau zirriborroetako bitan eta azken erantzunean mantentzen da: «At the heart of the capitalist system is a complete separation of ... the producer from the means of production...», ed. Ingelesa. «Dem kapitalistischen System liegt also die radikale Trennung des Produzenten von den Produktionsmitteln zugrunde...», Vera Zasulitxi zuzendutako gutuna, MEW, 19, 242.or, lehen zirriborria, idem, 384. or., eta hirugarren zirriborria, idem, 401. or. Esaldiak *Kapitalaren* edizio frantsesaren 315. orriari egiten dio erreferentzia zuzena.

Modu horretan, sistema kapitalistan desagertu egiten da komunitatearen osagai komun oro, besterendutako lan kolektiboa izan ezik. Komunitate «abstraktu» bat baino ez da, eta haren baliabideak taldeko sektore txiki baten mende eta kontrolpean daude, komunitatearen mantentzean interes gutxi duena. Era berean, baliabideez jabetzeko arauak soldaten eta ondareen diru-mugen arabera zehazten dira. Ondorioz, oso komunitate hauskorrak dira, komunitate-loturak hausteko joera izaten dute eta baliabideak mantentzetik aldentzen dira, nahiz eta, aldi berean, bizirik iraunarazten dituen dinamismo ekonomikoaren galera posiblearen beldur diren. Marxek gai hau alienazioaren izenburupean jorratu zuen.

Zirriborroetan aurkeztutako analisian, Marxek honako galdera jartzen du mahai gainean: feudalismoaren ezabapenak edo, hobeto esanda, hura kapitalismoarekin ordezkatzek, komunitate forma zaharrak desagitea ote dakarren ala ez. Ondorioztatzen du Europan ez dela hala izan, desagertu hori kapitalismoaren genesia baino lehenagokoa delako eta ez duelako zerikusirik harekin; askoz lehenagoko prozesu bati dagokio. Kapitalismoaren genesiarekin zerikusia izan baduena, aldiz, desagite horren ondorioz sortutako jabe pribatu txikien desjabetzea da.

Horrela, jabetza pribatuaren hainbat forma bereizten ditu: jabetza kapitalista esku gutxitan kontzentratutako jabetza pribatua da eta beste jabetza pribatu mota bat ordezkatzeko du, nekazari familien jabetza indibidual edo familiarra —patriarkala—. Mendebaldeko Europako kapitalismoak ez zituen landa-komunitateak desegin, mendetako feudalismoan desegin ziren «berezko garapen» luze baten ondorioz. Mendebaldeko mugimenduak jabetza

pribatu mota bat beste batekin ordezkatu zuen, nekazari asko desjabetuz, izan jabe pribatuak edo baliabide kolektibo jakin batzuez baliatzeko aukera zuten jabetzarik gabeko nekazariak, bere kontzentrazio-ahalmen handiari esker.¹³ Errusian, aitzitik, Marxen arabera, ez da halako prozesurik izan eta jabetza komuna mantentzen da. Horregatik agertzen da haren desegitearen arazoa. Gauza bera gertatzen da kolonietan, non jabetza komunal hori indarrez ezabatzen duen potentzia menderatzaileak.¹⁴

Hori horrela izanik, akatsa litzateke jabetza indibiduala [pribatua] jatorrizko gertakari gisa hartzea; izan ere, historikoki hori bera komunitate primitiboen desegitearen emaitza da. Europan ez zen presio kapitalistaren ondorioz izan, gizarte feudalak pixkanaka deskonposatu zituen bilakaera motel baten emaitza baizik, zeinetan oraindik ere aurreko komunitate horien aztarnak geratzen ziren. Bilakaera motel horretan komunitate arkaikoak oso atzean geratu ziren. Hala ere, zirriborro hauetan, *Grundrisse* testuetan ez bezala, ez du ezer aipatzen landa-komunek eta estatu-erakundeek haien aurka zerabiltzaten botere despotikoaren konbinazioaren inguruan, zeina modu bat zen zergen ordainketa kolektiboa bermatzeko, banaka beharrean kolektiboki ordaintzeak neurri handiagoan berma-

13 David Harveyk garrantzi handia eman zien Europako kapitalismoaren hastapenetan, batez ere Britainia Handian, nekazari masa handiak desjabetu eta kapital metaketa bultzatu zuten lurren hesitzei. Gaur egun prozesu horrek planetako beste eremu batzuetan jarraitzen du, bertako herritar-masak beren ondasun komunetatik desjabetzearen bidez. Hain zuzen ere, sistemaren ezaugarri iraunkorra da.

14 Ikus R. Guharen ikerketa Indiako dominazio britainiarraren inguruan, *Una ley agraria para Bengala* (Madril, Traficantes de sueños, 2017). Guhak azaltzen du britainiar legeria izan zela landa jabetza pribatua Indian sorrarazi zuena, eta horrek eratu zuela lurra landu gabe nekazaritza errentatik bizi den klase ertaina, zeinak nekazarien esplotazioan parte hartzen duen Inperioaren mesedetan.

tzen baitu nekazarien zerga-ordainketa. Hori da, egile batzuen arabera, *mir*-a Errusian mantendu izanaren arrazoa, besteak beste, Stolypinen 1906ko nekazaritza erreformari esker.

Lehen eta hirugarren zirriborroetan mantentzen den argudiaketa oinarri horri jarraiki, Marxek bi landa-komuna forma bereizten ditu: «arkaikoa» deritzona eta modernoa. Zirriborroen oinarri diren Lewis Morganen testuen irakurketarekin lotuta,¹⁵ nekazaritza komunitate forma desberdinak aztertzen ditu, batzuk besteak baino garatuagoak. Garatuago daudela esaten du horietan kooperazioa jabetza eta/edo lan indibidualarekin konbinatzen delako. Bere ustez, jabetza kooperatiboa banakako ekarpenarekin konbinatzearen dualismo horrek emaitza hobeak ematen ditu eta positibotzat hartzen duen «indibidualtasunaren garapena» ahalbidetzen du, baina aipatzen du modu negatiboan ere garatu daitekeela, eta deskonposizioa sustatu.

«Komuna arkaikoa» nonahi existitu zen eta haren ezaugarri behinena zen familiarteko loturek osatzen zutela komunitatearen oinarria. Forma garatuagoetan lotura horiek ahuldu eta ingurunearekiko harreman zabalagoei bide eman zieten. Eredu oso primitiboetatik etxea eta baratzea baziren jabetza indibidualekoak, baina lurra, larreak edo basoak eta lanabesak, aldiz, elkarrekin lan egiten zuen komunitatearenak ziren,

15 Irakurketa horren testuak L. Kraderrek argitaratu zituen hemen: *Los apuntes etnológicos de Marx* [Marxen apunte etnologikoak], Madril, S.XXI editores, 1988 [jatorrizko ed., 1972]. Irakurketak 1880ko neguaren eta 1881eko udaberriaren artekoak eta 1882ko amaiera bitartekoak dira. Marx 1883an hil zen. Lehen zirriborroa 1881eko otsaila-martxoan idatzi zuen eta hirugarrenean Maineri buruzko aipamen negatiboa egiten du, Apunteetan jasotako balorazioarekin bat. Testu horiek lotura estua dute Engelsen *Familiaren, jabetza pribatuaren eta Estatuaren jatorria* liburuarekin, Marxen oharra erabili baitzuten.

produktua eta lana prozedura desberdinen arabera banatzen zituenak.

Mir-a eredu garatuago horretakoa zen, non komunitatea zen lurraren jabe eta familien artean banatzen zuen, berdintzeko joera zuten irizpideen arabera, kontuan hartzen baitzuen familia-unitatean lan egiten zuten pertsona kopurua edo elikatu beharreko aho kopurua. Lursailak urte batzuen buruan banatzen ziren berriro eta behin familia batek bat eskuratzen bazuen ez zuen inolako abantailarik hurrengo banaketarako. Sistema horrek oso bidezkoa eman dezake, baina ez zuen saihesten familia aberatsagoek edo kide gehiago zituztenek —kasu batzuetan adopzioaren bidez— edo baliabide gehiago zituztenek —hala nola animaliak edo lanabesak— lursail handiagoak edo emankorragoak hartzea, eta, ondorioz familia pobreenak bazter geratzen ziren.

Honi gehitu behar zaio XIX. mendean eta XX.a-ren hasieran izan zuen bilakaera, ez soilik lehen aipatutako neurri politikoengatik, baita landa-eremuan pribatizazio kapitalistako prozesuei aurre egin behar izan zielako ere. Horrek aukera eman zion Charles Bettelheim adituari baieztatzeko *mir-a* XX. mendearen hasierarako bazela «lurraren birbanaketarako *aparatu politiko bat*, *banakako laborantza* bermatzen zuena eta ez kolektiboa [...]; aparatu politiko gisa ez zen neutrala... oro har, nekazari aberatsenек dominatzen zuten [...]; hala ere, bere existentziak *landa-komunitate baten forma* hartzen zuen, zeinak herrixka bakoitza mundu isolatu batean bihurtzeko joera zuen, gainerakoengandik bereiziak, beren agintari propioekin... Historikoki, *mir-a* autokrazia tsaristaren garapen eremua izan da [...]; maila ideologikoan, berdintasun formek, zenbait desberdintasun ekiditeko balio ez bazuten ere, ber-

dinkeria eta indibidualtasun burges txikia indartzeko balio zuten, nekazarien interesen kaltetan».¹⁶ Egilearen arabera, ezaugarri horiek zaildu egin zuten landa eremuan botere sobietarra ezartzea eta, ondorioz, *mir-a* ez zen akuilu izan iraultzan, Marxek lehen zirriborroan iradoki bezala, kontrakoa gertatu zen. Hogeiko hamarkadaren hondarrean eta hogeita hamarrekoaren hasieran, aldi estalinistaren lurraren kolektibizazio prozesuan galdu egin zen.¹⁷

Bere testuetan, Marxek formula horren dualismoa azaltzen du: jabetza eta lan komunaren existentzia eta, aldi berean, etxeen eta ortuen jabetza indibiduala izatea. Horregatik dago bilakaera dilematikoaren mende eta horregatik da ezinezkoa mahai gainean jarritako galderari soluziobide kategorikoa ematea. Aurreko garaietan landa-komunak balio aurrerakoiak izan arren, kapitalismo garatua arriskutsua izan daiteke. Izan ere, komunitate-loturen erreproduzioak komunitatea bera babestu eta jabetza kolektiboa zentzu sozialistara bideratzen lagundu dezake, lehen zirriborroan azpimarratzen den gisara. Aitzitik, komunitate horiek berak mendeko bihurtuko dituen despotismorantz jo dezake —hori da ekialdeko despotismo bezala izendatzen dituenetan gertatu dena—,¹⁸ komuna pobretuko

16 Ch. Bettelheim, *Las luchas de clases en la URSS, Primer periodo (1917-1923)*, Madril, S.XXI editores, 1976, 192-194. or.

17 Ikus, besteak beste, Corbera Millan, M., «La Comuna rural rusa en la larga duración: del feudalismo al sistema soviético» [Errusiako landa-komuna epe luzera: feudalismotik sistema sobietarrera], Kantabriako Unibertsitatea, Interneten eskuragarri: SEHA_congreso_2021_sesiones_simultaneas_5_corbera_millan_manuel.pdf.

18 Alderdi hori are gehiago garatzen du Marxek «Asiako ekoizpen modua» deritzona lantzen duen testuetan. Bide batez, aipatzekoa da izendapena ez dela egokia, ez baitu soilik ekialdeko gizarteetan eragiten, aitzitik, landa-komunen sistema guztietara hedatzen da, baldin eta haren soberakinak erauzteaz arduratzen den Estatu despotiko baten mende badaude. Esaterako, eredu horretakoa litzateke Inken Inperioa. Gai hau *La bárbara European* garatu nuen (Galceran, M., Madril, Traficantes de

duen Estatuaren presio fiskalaren mendeko bihurtzera bultzatu dezake, edo bortxakeria kapitalistaren ondorioz desagitera. Ezin ahaztu merkataritza-transakzioek biziraupenerako beharren gainetik duten nagusitasuna, baliabideen antolamenduan arazo handiak sor baititzakete.

Nolanahi ere, Marxek nahiko ziur dirudi kapitalismoa desagerraraziko duen krisiak «gizarte modernoak jabetza komunaren eta ekoizpen kolektiboaren eredu “arkaikora” itzularaziko» dituela.

Baieztapen horretatik ondorioztatu daiteke Errusiako komuna, bertako baldintzengatik denboran iraun duen landa-komunitate bat besterik ez den heinean, salba litekeela iraultza bati lotuz gero eta, beraz, badirudi Marx Errusiaren kasuan nekazaritza eduki sakoneko iraultza batean pentsatzen ari zela. Horrek nolabaiteko aldaketa dakar nekazariei buruzko bere ikuspuntuan, beste lan batzuetan, kasurako, *Luis Bonaparteren brumairearen hemezortzia* lanean, bonapartismoaren erreakzioaren oinarria osatzen duten masa amorfo baten gisara aurkeztu baitzituen.¹⁹

Horrela, bada, historiaren linealtasuna zalan-tzan jarri eta ibilbide anitzen aukera zabaltzearekin batera, nekazarien inguruko balorazioa Marxen azken hausnarketen beste elementu berritzaile bat da eta interesa pizten du marxista ez europarren artean. Marxengan eragin handia izan zuen Frantziako iraultzaileek nekazarien inguruan zuten ikusmoldeak,

sueños, 2016, 116. or eta hurrengoak).

- 19 Barrington Moore-ren historia konparatiboaren ikerketak (*Los Orígenes Sociales de la Dictadura y la Democracia*, Bartzelona, Península, 2004^a), erakusten du lur-jabeen askotariko posizioek eta nekazarien mugimenduek Europako herrialde batzuetan ezaugarri burges-demokratikoko gizarte-erlaketak eragiten dituztela eta, aldiz, beste batzuetan, hala nola Errusian, Txinan edo Japonian, erlaketak ez-demokratikoak sustatzen dituztela.

sektore erreakzionariorat hartzen baitzituzten, batez ere Frantziako Iraultzaren garaian hartu zituzten posizionamenduen ondorioz eta haien atabismo eta lokalismoarekiko nolabaiteko mespretxuaren eraginez. Marxismo sozialdemokratak ikusmolde hori hartu zuen oinordetzan. Kautskyk zioenez, nekazaritzaren auziak bilakaera motela izango zuen eta landa eremua pixkanaka proletarizatuko zen, lur-jabe txikiek beren ondasunak galdu eta landa-proletario bihurtu arte, soldatapeko bilakatu arte, alegia. Soilik orduan izango litzateke posible hiriko langileen eta landa-langileen arteko aliantza.²⁰ Jakina denez, gai hau Bernsteinekin izandako errebisionismoaren inguruko eztabaidan agertzen da, hark proletarizazio progresibo hori zalan-tzan jarri eta atentzioa jarri baitzuen jabetza txikiak mantentzean. Leninek nekazariak iraultzan izan zuten eginkizuna azpimarratu zuen, batez ere biztanleen masa handia nekazariak ziren herrialde kolonialetan. Baina, botere sobietarra langileen eta nekazarien arteko aliantzan oinarritzen zela ulertzen bazuen ere, azken hauek mendeko posizioan zeudela uste zuen. Ez zituzten iraultzaren agente fidagarritzat hartzen, besteak beste, ez zutelako klase-kontzientzia indartsurik, landa-eremuetako buruzagi eta jauntxoekin lerrokatzeko joera zutelako eta nolabaiteko isolamenduan bizi zirelako. Botere sobietarraren aurka nekazariak

20 Kautsky, *La cuestión agraria*, Bartzelona, Laia, 19742. [1. ed. alemaniarra, 1899]. Kautskyk testu hau idatzi zuen XX. mendeko laurogeita hamarreko hamarkadan alemaniar sozialdemokrazian nekazaritza programaren inguruan izandako eztabaiden testuinguruan. Lan horretan Vollmarrek defendatutako posturaren aurka egin zuen, landa eremuko jabe txikiei kontsezioak egitearen alde baitzegoen, sozialdemokraziaren alde jar zitezen bultzatzeko. Beste aldetik, Kautskyk eta Bebelek defendatu zuten nekazaritza-jabetza txikiak ezin zuela lehiatu landa-eremuko enpresa kapitalista handiekin ezta lur-jabe handien boterearekin, eta, beraz, desagertzea kondenatua zegoela eta pixkanaka nekazariak pobretzen zituela, nahiz eta garapen hori espero baino motelagoa izan.

izandako erresistentzia eta etengabeko borrokek, eta nekazarien masekiko noraezeko politikek agerian utzi zituzten nekazarien sektorea benetan ulertzeko eta gizarte berrian txertatzeko boltxebikeek zituzten arazoak. Aitzitik, Hegoamerikako intelektualek, besteak beste García Linerak, nekazarien mugimenduen eta haien komunitateen dimentsio iraultzailea berreskuratu dute. Txinako iraultzak erakutsi zuen nekazaririk gabe ez zela iraultza posiblerik izango nagusiki nekazaritzarekin lotutako Hegoalde Globaleko herrialdeetan. García Linerak, *Forma valor y forma comunidad* [Balioaren forma eta komunitatearen forma] testuan, ia hitzez hitz errepikatzen du Marxek gutunaren lehen zirriborroan jasotzen duen ideia eta berresten du «komunitatea» etorkizuneko komunismoaren forma izan daitekeela:

Antzinako komunitatea «eredu arkaikoko forma goren batean» berreraikitze sekulako lan hori, egun forma komunalak suntsitzea bilatzen duen erregimen berberetik sortzen diren helburu kontrajarriei esker da posible. Kapitalismoa, mundu-sistema den heinean eta forma komunalen garaikide izateari esker, azken hauei ahalbidetzen die «bere (kapital unibertsalizatuaren) fruituez jabetzea ekoizpen kapitalistaren *modus operandi*ari lotu beharrik gabe», ekoizleen arteko interkomunikazioari eta interdependentzia globalizatuari forma sozial berri bat ematea, baita garapen zientifiko-teknologikoaren formaren zenbait ezaugarri, lan-denbora aberastasun sozialaren neurri gisa gainditzeko bilaketari, eta abarri ere. Baina, hori guztia gizartearen sormen indarren benetako birjabetze gisa gauzatzeko, baldintza eta hari nagusia da autobatasun komunal subjektibo eta materiala, komunitateen frustrazio eta elkarren arteko zein egungo gizarteko gainerako lan-indarreko isolamendu lokaletik askatzen hasteko aukera ematen diona: gizarte-emantzipazioa ez da besterik.²¹

21 *Op. Cit.*, 347-8.or.

Argudiaketa landua eta auziarekiko zenbait aldaketa antzeman daitezke. Lehenengo zirriborroak hasierako hurbilketa bat egiten du eta hurrengo zirriborroetan konplexuagoa bihurtzen da: 2.ean, 3.ean eta 4.ean, azken hau ia hitzez hitz dator bat bidalitako gutunarekin.

Zeintzuk dira gai horiek?

Lehenik eta behin, Marxek argi eta garbi adierazten du feudalismoaren bilakaerari eta kapitalismoak hura ordezkatzeari buruzko bere azterketa Mendebaldeko Europara mugatzen dela soil-soilik, eta ez diola eragiten Errusiako nekazaritza-jabetzari. Horregatik ezin da orokortu eta, nahiz eta badituen eztabaidagarriagoak diren beste testu batzuk, ezin da esan analisi hauetan eurozentrismo espliziturik dagoenik.²² Are gehiago, aipa daiteke *Grundrisse*-etan (1857-8ko eskuizkribua) jadanik ageri bazen ere, antzinako nekazaritza-komunen azterketak, bereziki kolonialismoak eragindako suntsipen bortitzarekin lotutakoak, hauspo berria hartu zuela Marxengan 1879an Kovalevskyren liburua irakurri zuenean, eta hurrengo urteetako bere etnologia eta antropologia ikasketak markatu zituela.²³

Bigarrenik, hainbat ñabardura egiten ditu landa-komunak ulertzeko duen moduaren inguruan, eta bereizi egiten ditu «landa-komuna modernoagoak» eta «eredu arkaikoko komunitate zaharragoak». Aurretik aipatutako Morganen testuak irakurtzeak desberdin-

22 *La bárbara Europa* [Europa Barbaroa] liburuan Marxen beste testu batzuk aztertu nituen, bereziki Indiako kolonialismoari eta 1956ko mugimenduei buruzko artikulak, non dimentsio eurozentrikoa nabarmenagoa den.

23 Nestor Kohenek Kraderrek alboratu zituen Kovalevskyren Koadernoaren laburpenak argitaratu zituen (I. Koadernokoak), A. García Lineraren sarrerak lagunduta. Bartzelona, Bellaterra Edicions, 2021.

tasun horiek aztertzeko aukera eman zion. Hala eta guztiz ere, emaitza bera da: antzinako komuna desgiteak ez dakar zuzeneko trantsizio bat jabetza pribatu kapitalistara, hau da, jabetza pribatu zentralizatua eta esku gutxitan kontzentratu batera, baizik eta jabetza pribatu indibidual edo familiarra (patriarkalera) darama. Lehenengoa da, hots, jabetza kapitalista, nekazarien desjabetzea eragiten duena, eta ez hainbeste bigarrena. Jabetza kapitalista jabetzaren kontzentrazio-mugimendu baten emaitza gisa aurkezten da eta, beraz, ez da lurraren jabetza komunaren ezabatzeagatik ezaugarritzen, ordurako ez baitzen existitzen; aitzitik, definitzen duena da jabetza pribatu txikia ezabatzea eta nekazaritzan oinarritutako biziraupen-ekonomia mota bat produktuen merkantilizazioan eta salerosketan oinarritutako beste ekonomia batekin ordezkatzeta. Landa-komunitateen suntsipena ez dago lotuta kapitalismoa Europan agertzearekin, nahiz eta kolonietan harekin bat egin.

Hirugarrenik, Errusiako komunaren iraupena edo desgitea kapitalismoak Errusian izango duen aldi bereko garapenaren arabera izango da, eta ez dute hainbesteko loturarik izango Mendebaldeko Europan sortu zen sistemaren genesiaren premiekin. Horrek eraldaketa historikoen dislokazioa dakar: ez da ezinbestekoa esfera kapitalistan berandu sartzen diren herrialdeek hura sorrarazi zuten urratsak erreproduzitzea, prozesu luze baten ondoriozko berrikuntzak bereganatu ditzakete hura erreproduzitu gabe. Beste era batean esan genezake ez dituztela etapa batzuk igaro behar, ekoizpen baldintza berriak txertatzen ditzutelako, baita tresna teknologiko garatuenak ere, jatorrizko gizarteetakoak bestelako dinamikak dituz-

ten gizarteetan. Horrek ikuspuntu teoriko hutsetik nekez aurreikus daitezkeen eraginak ditu.

Arrazoi horiengatik guztiengatik, ezin da ondorioztatu Errusiako komunak Errusia eraldatuan bizitasun maila nahikoa mantenduko lukeenik, ezta eraldaketa horrek bere biziberritzea ala desagertzea ekarriko lukeen ere. Marxek ekoizpen moduen sekuentzia aplikatu izan balu, marxista batzuek bere metodoaren oinarritzat dutena, bere erantzuna zehatza izango zen: ez, Errusiako iraultzak bizi-rik iraun zuten forma komunalen desegitetik igaro behar zuen. Hainbat zirriborro idatzi izanak eta kategorikoki adierazi izanak ez zuela erantzun zehatzik, garbi adierazten du bere lan egiteko modua ez datzala sekuentzia bat aplikatzean, edozein dela ere, baizik eta egoera zehatz bakoitza bere ñabardura eta berezitasun guztiekin aztertzean, emaitza ziurgabea izan arren, edozein garapen historiko den bezalaxe. Horrek esan nahi du baiezko erantzunik ere ez dela posible, komunitate formari eusteak etorkizuneko iraultzari egiten dion ekarpena aukera bat besterik ez baita.

Hitzatzea

Boltxebikeen iraultzaren esperientziaren ondoren, bitxia da ikustea nola desjabetu ziren jabetza handiak 1917ko lurraren gaineko dekretuarekin. Alde batetik, lurraren gaineko jabetza pribatuaren esku-bidea abolitu zuten, baina ez zituzten konfiskatu nekazari soilen eta kosakoen lurrak eta, beraz, sektore horien jabetza indibiduala mantendu egin zen. Bestetik, lur-jabe handiak desjabetu zituzten, Elizaren eta Estatuaren lurrak barne, eta nekazarien artean metodo tradizionalen arabera banatzen zen funts komunera

gehitu zituzten, *mir*-a barne. Baina ardura hori zuen erakundea sobieta zen, ez *mir*-a, boltxebikeak mesfidati zirelako harekiko.

Itxura guztien arabera, boltxebikeek neurri hori hartu zuten nekazarien eskaerek bultzatuta. 1917ko uztailetik eta urrira bitartean mobilizazio handiak izan ziren landa eremuan, lurak okupatu zituzten eta berriz banatu, indibidualki ustiatzeko. Landa-komunaren esparruaren baitan egiten zuten (aurretik aipatutako *mir*-aren baitan), baina honek presio handia jasotzen zuen nekazari-sektore aberatsen aldetik. Gainera, banaketa-moduak berak desberdintasunak sortzen zituen; izan ere, hasiera batean lursailak aldian-aldian birbanatzea aurreikusten bazen ere, askotan unean uneko egoerek eta onuradun handien erresistentziek atzeratu edo eragotzi egiten zuten banaketa. Era berean, behin-behineko gobernuak ekintza horiek erreprimitu zituen eta, horrek, nekazarien mugimendua erradikalizatzea eta jarrera iraultzaileetara igarotzea ekarri zuen. Sobietetako kide boltxebikeen kopurua handitu zen, nahiz eta gehiengoak sozial-iraultzaileak babesten jarraitu zuen. Hain zuzen ere, Leninek 1917ko lurraren inguruko dekretua sobieten programaren betetze gisa aurkeztu zuen, ia hitzez hitz bat baitzectorren 1917ko abuztuan Nekazarien sobieten kongresu pan-errusiarrean osatutako dekretu-proiektuarekin.²⁴ Auzi arazotsua izan zen;

24 «Hemen esaten da [lurraren gainera] dekretua eta agindua sozialista iraultzaileek idatzi dituztela. Hala bedi. Ez du axola nor idatzi dituen; baina gobernu demokratiko gisa ezin diogu bizkar eman herritar-masen erabakiari, nahiz eta harekin ados ez egon», Lenin, *II Congreso de los soviets de diputados obreros y soldados de toda Rusia*, 25 y 26 de octubre (7-8 de noviembre) de 1917 [Errusia osoko diputatu langile, gudari eta nekazarien Sobieten II. Kongresua, 1917ko urriak 25 eta 26 (azaroak 7-8)], *Obras escogidas en 12 tomos*, Moscú, Progreso, 1977, VII, 396.or.

izan ere, iraultzaren aurretik boltxebikeen eta sozial-iraultzaileen landa-auziari buruzko programak honako honek bereizten zituen: lehenek ustiaketa kolektiborako nekazaritza-ustiategi handiak sortzea defendatzen zuten, eta, bigarrenak, ordea, lurra-
ren «sozializazio» deiturikoa babesten zuten, goitik jasotzen zuten presioa ezabatzeko eta komuna tradizionalak mantentzeko eta eraberritzeko neurriak lagunduta. Sozial-iraultzaileek *mir*-a nekazarien autonomiaren funtsezko erakundetzat hartzen jarraitu zuten, eta boltxebikeek, berriz, komuna tradizionalak zein landa-eremuko sobietak jardunbide kazikeen esparru gisa ikusten zituzten, non nekazari aberatsek beren interesak nekazari pobreen eta/edo jornalarien gainetik jartzen zituzten. Horregatik, azken horien batzordeak sustatu zituzten lehenengoei aurre egiteko, eta inoiz ez zuten seriozki hartu landa-komunen indartzea. Horrela bada, langileen eta nekazarien arteko aliantza, boltxebikeen esanetan Estatu sobietarraren funtsezko zutabea ei zena, nahiko ahula izan zen. Alde batetik, landa-eremuko ordezkari politikoak sozial-iraultzaileak edo mentxebikeak ziren gehienbat eta boltxebikeek eragin txikia zuten landa-eremuan. Ideologikoki, gainera, nekazarien mugimenduak ez zuen ikusmolde burgesarekin apurtu eta lurraren pribatizazioaren alde egin zuen. Beste alde batetik, gerra-komunismoaren garai osoan (1917-21), hirietako biztanleak elikatzeko landa-produktuak konfiskatzeko nekazarien erresistentzia sendoa eragin zuen eta nekazari pobreen batzordeak sortzeko saiakerak ez zuten lortu landa-eremuko sare sozialak haustea. Horrek boltxebikeenganako mesfidantza handia piztu zuen, eta are gehiago zabaldu zen 1918ko amaieran gainerako alderdiak debekatu zituztenean. Hain zu-

zen ere, alderdi horiek boltxebikeekiko etsaitasuna erakutsia zuten, ez zuten matxinadaren garaipena onartu eta Gobernuaren parte izateari uko egin zioten, ezkerreko sozial-iraultzaileek salbu, gerra zibila hauspotuz ondorioz. Izan ere, 1921ean gerra amaitu ondoren *boltxebikeen aurkako* nekazarien mobilizazioa faktore erabakigarria izan zen Politika Ekonomiko Berria onartzeko, zeinaren bidez lurra berriz pribatizatzea onartu eta nekazaritza produktuen salerosketa liberalizatu baitzen. Horrek guztiak argiki islatzen du Errusiako Iraultzaren konplexutasuna: alde batetik iraultza burgesa, nekazari jabeak burgesiaren bizkarrezur gisa ulertzen zituena nekazari-herrialde baten baitan; eta, bestetik, iraultza proletarioa, zeinak, gizarte-egituraren ahuleziaren ondorioz, ez zuen lortzen Estatu berriak goitik eragindako boterea mugatzeko kontrabotere eraginkorra sortzea.

Zirriborroek beste galdera bat jartzen dute mahai gainean: zein izango ote den gizarte kapitalistan agente bateratzailea, egiazko komunitatearen falta eta jokabideen muturreko indibidualizazioa kontuan hartuta. Erantzun historikoak zenbait elementu utzi ditu agerian, besteak beste, erakunde politiko sendoak, bereziki Estatua, eta merkataritza- eta negozio-transakzioen nagusitasuna. Pertsona bakoitza puntu bat da sare handi batean, multzoak inolako kontrolik eta gainbegiratzetik gabe dituen transakzio eta harreman ugariz osatutakoa, eta beti kolapsatzeko zorian dagoena.

Sistema horren ahultasuna muturreko egoerara iritsi da gure garaian eta arriskuan jartzen du planetako bizitzaren jarraitutasuna bera. Hala ere, zaila da komunitate mota berri hori nolakoa izan beharko litzatekeen irudikatzea, oinarritzko ildo

batzuez harago. Horien artean leudeke planeta zaintzeko premia, izaki guztien bizitzaren euskarri baita, eta pertsona guztiok txertatuta gauden lankidetzasareak babesteko beharra. Sare horiek dira, eskala desberdinetan, kolapso uneetan biziraupena ahalbidetzen dutenak, eta horien inguruan garatu daitezke autoantolatutako komunitate berriak eta enpresa mota berriak, tokiko, eskualdeko eta nazioz gaindikot mailan erakunde mota berriak sortzeko gai izango direnak. Marxen garaian gertatzen zen bezala, landa-komunitateak, komunitate indigenak bezala, komunismo mota berri baten ernamuin izatea aukera bat baino ez da; bitartean, beste komunitate mota batzuk agertzen jarraitzen dute —materialak, pertsonalak eta birtualak—, apika, ondasun komun berriak zaintzeko gai izango direnak.

Montserrat Galcerán Huguet
Madril, 2025eko iraila

VERA ZASULITXEK GENEVATIK KARL MARXI ZUZENDUTAKO GUTUNA (1881EKO OTSAILAREN 16A)²⁵

Herritar ohoratua,

Jakin badakizu zure Kapitalak ospe handia duela Errusian. Argitalpena konfiskatua izanagatik, gure herriko jende gutxi-asko jantziak gelditzen diren ale apurrak behin eta berriro irakurtzen ditu; badira estudiatzen duten gizaki serioak. Baina, segur aski ez duzu jakingo zer eragin duen zure Kapitalak Errusiako nekazaritzaren eta gure landa-komunaren inguruko eztabaidetan. Inork baino hobeto dakizu zein premiazkoa den auzi hau Errusian. Badakizu zer pentsatzen zuen Txernyhevskik horretaz. Gure literatura aurrerakoiak —«Otechestvennye Zapiski»²⁶ bezalakoek, kasurako—

25 *Jatorrizko editorearen oharra:* Gutun hau, Marxen zirriborroak eta erantzun gutuna, guztiak frantsesez idatziak, David Riaznovék 1926an emandako bertsiotik hartu dira (*Marx-Engels Archive*, I. liburukia, 1926, 316-342 or.)

Itzultzailearen oharra: Paragrafoen banaketa eta letra etzanak 1926ko argitalpenari jarraiki ezarri dira. Berariaz azaldu ezean, ohar guztiak jatorrizko testuari dagozkio. Marxek ezabatutako pasarteak kako zuzenen bidez adierazi dira —[]— eta horien barruan Marxek marratutako hitzak gezi formadun kakoen barruan —{}— sartu dira.

26 *Itzultzailearen oharra:* «Aberriaren urte liburuak» (errusieraz «*Отечественные записки*») Errusiako literatura eta gizarte arloko

haren ideiak garatzen jarraitzen du. Baina, nire ustez, auzi hau hil ala biziko kontua da, bereziki gure alderdi sozialistarentzat. Gai honi erreparatzeko modu baten edo bestearen mende dago baita gure sozialista iraultzaileen patu pertsonala ere. Bi aukera baino ez daude. Batetik, landa-komuna, zerga-eskakizun handietatik, jauntxoei ordaintzetik eta administrazio arbitrariotik aske, gai izatea bide sozialistan garatzeko, hau da, pixkanaka bere ekoizpena eta banaketa modu kolektiboan antolatzeko. Kasu horretan, sozialista iraultzaileak indar guztiak eskaini beharko dizkio komunaren askapenari eta garapenari.

Aitzitik, komunaren patua galtzea bada, sozialistari ez zaio beste aukerarik geratuko kalkulu zehaztugabeei ekitea baino, jakiteko zenbat hamar-kada igaro beharko diren nekazari errusiarren lurra burgesiaren eskuetara igarotzeko, zenbat mende, akaso, beharko diren Errusian kapitalismoak Mendebaldeko Europan duen garapen-mailaren antzekoa lortzeko. Orduan, hirietako langileen artean soilik egin beharko dute propaganda, zeinak, landa-komunaren desagitearen ondorioz hiri handietako galtzadetara soldata bila joandako laborarien etengabeko uholde batean murgilduta egongo baitira.

Azkenaldian, maiz entzuten dugu landa-komuna forma arkaiko bat dela, historiak, sozialismo zientifikoak, alegia, ukaezina omen den guztiak, galtzera kondenatu duena. Hori predikatzen dutenek zure jarraitzaile sutsutzat dute beren burua. «Marxistak» omen. Haien argudio nagusia izan ohi da: «Marxek esan du».

aldizkari garrantzitsuenetako bat izan zen. Etenaldiak tarteko, 1818tik 1884ra bitartean argitaratu zuten San Petersburgon. 1870eko hamarkadatik aurrera lotura estua izan zuen Nardonik mugimenduarekin eta eraldaketa sozialaren aldeko ideiak zabaltzen lagundu zuen.

Galdatzen dietenean: «Nola ondorioztatzen duzue hori bere *Kapitaletik*? Bertan ez da nekazaritzaren auziaz mintzo, ezta Errusiaz ere». Zure dizipuluek ihardesten dute, menturaz ausart samarturik: «Hala esango luke gure herriaz arituko balitz». Ulertuko duzu, beraz, zein interes handia pizten digun auzi honetan duzun iritziak. Mesede handia egingo zeniguke gure landa-komunaren patu posiblearen inguruan eta munduko herrialde guztiek ekoizpen kapitalistaren fase guztietatik igarotzeko duten behar historikoaren teoriari buruz dituzun ideiak azalduko bazenitu.

Nire kideen izenean, ausartzen naiz zuri eskatzen, herritar ohoratua, mesede hori egin diezaguzun. Denborak ez badizu uzten zure ideiak aski zehatz azaltzen, eskertuko nizuke gutxienez gutun bidez egingo bazenu eta baimena emango bazenit hura itzuli eta Errusian argitaratzeko.

Adeitasunez agurtzen zaitut,
Vera Zasulitx

Nire helbidea:
Imprimerie polonaise
Rue de Lausanne 49
Geneva

KARL MARXEK VERA ZASULITXI ZUZENDUTAKO GUTUNEN PROIEKTUAK

BIGARREN ZIRRIBORROA

I. *Kapitala lanean adierazi dut ekoizpen feudala ekoizpen kapitalista bihurtzeko [eraldaketak] metamorfosiak abiapuntu izan zuela ekoizleen desjabetzea eta, zehazki, bilakaera horren guztiaren oinarria nekazaritza ekoizleen desjabetzea dela* (edizio frantseseko 315. or). Eta jarraitzen dut: «Ez da oraino (nekazaritza ekoizleen desjabetzea) Ingalaterran baizik modu erradikalean gauzatu... Mendebaldeko Europako beste herrialde guztiak bide beretik doaz». (l. c.)

Beraz, [lerro hauek idaztean,] espresuki mugatu dut [garapen hori] «halabehar historiko» hori «Mendebaldeko Europako herrialdeetara». Nire pentsamenduari buruzko zalantza izpirik ez uzteko, hala diot 341. orrian:

«Jabetza pribatua, jabetza kolektiboaren antitesia den heinean, soilik existitzen da... lanaz besteko baldintzak norbanakoen esku daudenean. Baina, norbanako horiek langileak izan ala ez-langileak izan, jabetza pribatua formaz aldatzen da».

Horrela, [deskribatu] aztertu dudan prozesuak langileen jabetza pribatu eta zatikatu mota bat ordezkatu zuen: gutxiengo ñimiño baten jabetza kapitalista²⁷ (l.c. 342. or), *jabetza mota bat beste batekin ordezkatu zuen*. Nola [aplikatuko litzateke] aplikatu liteke hori Errusian, non lurra ez den, eta ez den inoiz izan, nekazaritza ekoizleen «jabetza pribatukoa»? [Nolanahi ere, Errusian jabetza komunalaren desegitearen behar historikoan sinesten dutenek ezin dute inola ere behar hori frogatu Mendebaldeko Europaren ibilera saihes- tezinaren inguruko nire azalpenaren bidez. Aitzitik, nik emandako azalpenetatik erabat bereizitako argudio berriak ekarri beharko lituzkete. Hau da nigandik ikas dezaketen gauza bakarra:] Beraz, Mendebaldeko ibileratik atera dezaketen ondorio bakarra honakoa da: Errusian ekoizpen kapitalista ezartzeko lehen urratsa jabetza komunala deuseztatzea eta laborariak des- jabetzea litzateke, esan nahi baita, herritar gehienek oste handia. Hori da, bederen, errusiar liberalen nahia [haien herrian ekoizpen kapitalista naturalizatu eta, beren buruarekin kontsekuente izanik, laborari gehie- nen oste handia soldatapeko langile soil bihurtu nahi dutenak]; baina, haien *desirak* frogatzen al du Katalina II.ak Errusiako lurretan Erdi Aroko lanbideen men- debaldeko erregimena [txertatzeko] ezartzeko zuen desiraz besterik?

[Errusiako nekazaritza ekoizleen esku dagoen lurra haien jabetza komunekoa denez eta ez denez se- kula izan haien jabetza pribatukoa...]

[Errusian, non lurra ez den eta ez den inoiz izan nekazaritza ekoizleen «jabetza pribatukoa», halako

27 Esaldia goitik behera dago zuzendua. Testuaren jatorrizko bertsioak hala zioen: «Horrela, aipatzen ari naizen prozesuak jabetza pribatu eta zatikatu... jabetza kapitalista bihurtzen du, jabetza mota bat beste batean eraldatzen du».

jabetza pribatua {hori} jabetza kapitalista bihurtzeko {eraldaketa} metamorfosia {zentzugabea da} {ezinezkoa da} pentsaezina da. {Atera litekeen ondorio bakarra litzateke...}. {Mendebaldeko datuetatik ondorioztatu daitekeen bakarra da...} {Mendebaldeko datuetatik {argibide} ikasgai bat atera nahi izatekotan...}]

[Inozoenek ere ezingo lukete ukatu bi kasu guztiz desberdin direla. Nolanahi ere, Mendebaldeko kasua...]

Hala, [nik aztertutako prozesuak] Mendebaldeko nekazaritza ekoizleen desjabetzeak «langileen jabetza pribatu eta zatikatua» kapitalisten jabetza pribatu eta kontzentratu bihurtzeko balio izan zuen. Zernahi gisaz, jabetza pribatu mota bat beste jabetza pribatu mota batekin ordezkatzeko da kasu bietan. [Nola aplikakiek, orduan, prozesu hori bera {Errusiako lurrari} Errusiako nekazaritza ekoizleei {zeinen lurra ez den eta ez den inoiz izan...}, zeinen lurralde-jabetza beti izan den «komunala» eta sekula ez «pribatua»? {[Aztertu dudana] prozesu historikoa bera, Mendebaldean gauzatu dena...}] Errusian, aitzitik, jabetza komunista jabetza kapitalistarekin ordezkatzeko litzateke kontua [lur-lantzaileena, eta hori, bistan da, prozesu bat litzateke erabat...].

Bai eiki! Ekoizpen kapitalistak bere erreinua Errusian ezarriko badu, laborarien gehien-gehienak, hau da, errusiar herriaren gehiengoa, soldatapeko bihurtu behar dira eta, ondorioz, desjabetu, haien jabetza komunista aldeztu aurretik abolituz. Baina, nolanahi ere, Mendebaldeko aurrekariak ez luke ezer frogatuko [prozesu honen «halabehar historikoaren» inguruan].

II. Aipatzen dizkidazun «marxista» errusiar horiek guztiz ezezagunak zaizkit. Pertsonalki ezagutzen ditudan errusiarrek, nik dakidala, guztiz kontrako ikuspegiak dituzte.

III. Ikuspegi historikotik erreparatuta, hauxe da Errusiako jabetza komunalaren *halabeharrezko desegitearen* aldeko [eman daitekeen] argudio serio bakarra: jabetza komunala Mendebaldeko Europa osoan izan da, eta orotan desagertu da aurrerapen sozialarekin; [zer dela eta izango litzateke haren patua desberdina Errusian?] nola egingo lioke ihes, orduan, zori berari Errusiak?²⁸

Lehenik eta behin, Mendebaldeko European jabetza komunalaren heriotza eta ekoizpen kapitalistaren [agerpena] jaiotza [mendetan zenbatu daitekeen] tarte itzel batek bereizten ditu bata bestearengandik, zeinean iraultza eta ondoko bilakaera ekonomikoen segida oso bat gertatu baitzen [jabetza komunalaren heriotzak ez zion ekoizpen kapitalistari bide eman], eta ekoizpen kapitalista horietarik [azkena] berriena baino ez delarik. Hark, alde batetik, modu miresgarrian garatu ditu indar produktibo sozialak, baina, bestetik, traizio egin dio [bere izaera iragankorrari] berak sortutako indar berberenganako duen bateraezintasunari. Ordutik, bere historia ez da antagonismoen, krisien, gatazken eta hondamendien historia besterik. Azkenik, bere izaera iragankorra agerian utzi die guztiei, salbu eta nahita itsu direnei. European eta [Amerikako Estatu Batuetan] Amerikan goraldirik handiena izan duen herrietan ez dute bere kateak haustea beste ametsik, ekoizpen kapitalista ekoizpen kooperatiboarekin ordezkatzu eta jabetza kapitalista jabetzaren eredu

28 Pasarte bera aurrerago lantzen du beste aldaera batean: «Ikuspegi historikotik erreparatuta, errusiar jabetza komunistaren *halabeharrezko desegitearen* alde argudio serio bakarra erabili da. Honako hau: jabetza komunista Mendebaldeko Europa osoan existitu da; orotan desagertu da aurrerapen sozialarekin. Zer dela eta egingo lioke ihes zori horri berari Errusiak baino ez?».

arkaikoaren *goragoko forma* batekin, esan nahi baita, jabetza [kolektiboa] komunista.

Errusia munduan isolaturik balego, orduan bere kabuz erdietsi beharko lituzke Mendebaldeko Europak eskuratutako konkista ekonomikoak, jatorrizko komunitateen existentziatik gaur egungo egoerara iritsi arte izandako bilakaeren segida luzea igaroaz eskuratuak ere. Nire ustez behintzat, zalantza izpirik gabe komunitate hauek Errusiako gizartearen garapenarekin batera halabeharrez galtzera kondenatuak izango lirateke. Baina Errusiako komunaren egoera osoki desberdina da Mendebaldeko [Mendebaldeko Europako] jatorrizko komunitateekin alderatuta. Errusia da jabetza komunala eskala handi eta nazionalean mantendu duen Europako herrialde bakarra, baina, aldi berean, Errusia testuinguru historiko moderno batean existitzen da, maila handiagoko kultura baten garaikidea da, ekoizpen kapitalista nagusi den mundu mailako merkatu bati lotuta dago.

[Ekoizpen kapitalista da, beraz, bere emaitzak uzten dizkiona eta, horrenbestez, ez du igaro beharrik haren...]

Ekoizpen modu horren emaitza positiboak bereganatzeari esker, bere landa-komunaren forma oraindik arkaikoa garatzeko eta eraldatzeko gai da, berau suntsitu beharrean. (Bide batez azpimarratzen dut jabetza komunista Errusian eredu arkaikoaren formarik modernoena dela eta berak ere bilakaeren segida oso bat igaro duela).

Sistema kapitalistaren Errusiako jarraitzaileek konbinazio horren aukera ukatzen badute, frogatu dezatela, orduan, Errusia makinez baliatu ahal izateko behartua izan dela ekoizpen mekanikoaren inkubazio aldia igarotzera! Azal diezadatela nola moldatu di-

ren egun gutxiren buruan truke-mekanismo osoa (bankuak, kreditu-enpresak, eta abar) haien herrian barneratzeko, Mendebaldeak mendeak behar izan dituen horiek apailatzeko.

[Nahiz eta Mendebaldean sistema kapitalista gainbeherara etortzen hasia izan eta {erregimen sozial} {eraketa erregresibo} eraketa «arkaiko» bat besterik izango ez den unera gerturatzen ari den, haren jarraitzaile errusiarrek...]

IV. Gure munduaren eraketa arkaiko edo lehen mailakoak, bere baitan, hainbat arotako geruzen segida bat gordetzen du, bata bestearen gainean ezarriak direnak; gisa berean, gizartearen eraketa arkaikoak eredu ezberdinen sorta bat erakusten digu [goranzko mailaketa bat osatzen dutenak], zeinak aroen progresioa adierazten baitu. Errusiako landa-komuna kate horretako eredurik berriena da. Nekazaritza ekoizleak dagoeneko badu bizi den etxearen jabetza pribatua, baita haren osagarria den baratzearena ere. Horra hor eredu zaharragoentzako ezezaguna den forma arkaikoaren lehen osagai disolbatzailea [eta trantsizio gisa balio dezakeena formazio arkaikotik...]. Eredu horiek guztiak, bestalde, komunako kideen berezko ahaidetasunean oinarritzen dira, eta errusiar komunaren eredu, aldiz, lotura hertsia horretatik aske dago. Horrexegatik da gai garapen zabalagoa izateko. Landa-komunen isolamendua, komunen bizimoduaren arteko loturarik eza, mikrokosmos lokalizatu hori [despotismo zentralizatu baten berezko oinarria izango litzatekeena], ez da nonahi ageri jatorrizko ereduaren ezaugarri immanente gisa, baina kausitzen den leku orotan komunitateen gainetik despotismo zentrala sorrarazten du. Irudi zait Errusian [landa-komunen bizimodu isolatua desagertuko dela] ezen lurraldearen

hedadura zabalak hasiera batean eragindako isolamendu hori erraz ezabatzen dela gobernuaren trabak aldaratu orduko.

Horrek aferaren muinera narama. Ezin da ezkutatu Errusiako [landa-]komunaren eredu arkaikoak barne dualismo bat gordetzen duela bere baitan eta, horrek, baldintza historiko jakin batzuetan bere hondamena [desegitea] ekar dezakeela. Lurraren jabetza komuna da, baina [bestalde, praktikan, lurra lantzean, ekoizpena laborari partzelarioena da] laborari bakoitzak [bere lursaila ustiatzen du, bere soroaren fruituez jabetzen da] bere kontura ustiatzen eta lantzen du bere soroa, mendebaldeko laborari txikien gisara. Jabetza komuna, lurraren ustiaketa partzelarioa, konbinazio hori [aurrerapenaren eta laborantzaren garapenaren osagai {ongarri}], antzinako garaietan baliagarria zena, arriskutsu bihurtzen da gure garaian. Alde batetik, nekazaritzan bertan gero eta esku handiagoa duten ondasun higigarriek apurka-apurka komunako kideen aberastasuna bereizten dute eta bide ematen diote interes-gatazka bati, batez ere Estatuaren presio fiskalaren kariaz; beste aldetik, jabetza komunaren nagusitasun ekonomikoa —lan kooperatibo eta bateratuaren oinarri gisa— galtzen da. Baina, ez da ahantzi behar ezen zatikatu gabeko soroetan laborari errusiarrek jadanik eredu kolektiboa praktikatzan dutela, arte²⁹ kontratuekin duten loturak laborantza partzelariorik laborantza kolektiborako jauzia biziki erraztuko liekeela, Errusiako lurraren konfigurazio fisikoak labo-

29 *Itzultzailearen oharra:* Iraultza aurreko Errusiako langileen ekoizpen kooperatibak. Artisautzako, eskulangintzako, industria arineko eta sasoiko langileen elkarrekin erdi formalak ziren. Nagusitasuna izan zuten bereziki 1861eko erreforma emantzipatzailean esklabotza indargabetu zenetik 1950eko hamarkada arte eta Sobietar Batasunean terminoa ekoizpen kooperatibei aplikatu zitzaien.

rantza mekaniko konbinatua akuilatzen duela eskala zabal batean [makinen laguntzarekin], eta, azkenik, errusiar gizarteak, hainbeste denboraz landa-komunaren kontura bizi izan denak, aldaketa horretarako beharrezkoak izan dituen aitzinamenduak zor dizkio-la. Jakina, aldaketa mailakatu bat baizik ez da, komuna baldintza normaletan ezartzearekin hasiko litzatekeena, bere *egungo* egoera kontuan hartuta.

V. Auzi gutxi-asko teoriko oro alde batera utzirik, ez dizut esan beharrik ere gaur egun interes boteretsuen konspirazio batek mehatxatzen duela Errusiako komunaren existentzia bera. Estatuaren bidez laborarien kontura elikatutako kapitalismo mota jakin bat komunaren aurka bekoz beko altxatu da; hura zapaltzeko interesa du. Lur-jabeen interesekoa da, halaber, gutxi-asko dirudunak diren laborariak landa-klase ertain gisa eratzea eta nekazaritza ekoizle behartsuak —alegia, masa— soldatapeko soil bihurtzea: hau da, lan merkea. Nola eutsiko ahalko luke komuna batek, zeina Estatuaren gehiegikeriek birrindua, merkataritzak arpilatuta, lur-jabeek esplotatua, lukurreriak azpiz jana baita?

Errusiako komunaren bizitza mehatxatzen duena ez da halabehar historiko bat, ezta teoria bat ere: Estatuaren zapalkuntza eta kanpotar kapitalisten esplotazioa da, zeinak Estatuak berak boteretsu bihurtu baitzituen laborarien kontura.

LEHEN ZIRRIBORROA

1) Ekoizpen kapitalistaren genesiari buruz esan nuen [bere sekretua dela], funtsean, «ekoizleen eta ekoizpen-bitartekoen bereizte erradikala» dagoela (Kapitalaren edizio frantsesa, I. zutabea, 315. or) eta «bilakaera horren guztiaren oinarria nekazaritza ekoizleen desjabetzea dela. Ez da oraino Ingalaterran baizik modu erradikalean gauzatu... Baina Mendebaldeko Europako beste herrialde guztiak bide beretik doaz» (I. c. II. zutabea).

Beraz, mugimendu horren «halabehar historikoa» berariaz mugatu nuen Mendebaldeko Europako herrialdeetara. Eta zergatik? Konpara ezazu, mesedez, XXXII. kapitulua, honako hau dioena: «Ekoizpen-bitarteko indibidual eta sakabanatuak sozialki kontzentratuikoetan eraldatzeko ezabatze mugimendua, askoren jabetza ñañoa gutxi batzuen jabetza kolosal bihurtzen duena, herri langilearen desjabetze mingarri eta lazarri hori da, hain zuzen, kapitalaren jatorria [...]. Jabetza pribatua, lan pertsonalean oinarritua, [...] jabetza pribatu kapitalistak ordezkaturiko du,

zeina besteren lanaren esplotazioan, hots, soldatapeko langileen esplotazioan, oinarritzen baita»³⁰ (340. or II. zutabea).

Halaber, azken finean, *jabetza pribatu mota bat beste jabetza pribatu mota batean eraldatzen da* [mendebaldeko mugimendua]. Errusiar laborariek landutako lurak ez badira inoiz izan haien *jabetza pribatukoak*, nola aplikatu dakieke garapen hori?

2) Ikuspegi historikotik erreparatuta, hauxe da Errusiako laborarien komunaren *halabeharrezko desegitearen* alde erabilitako argudio serio bakarra:

Denboran aski atzera eginez gero, mendebaldeko Europa osoan aurki daiteke gutxi-asko arkaikoa den jabetza komuna; orotan desagertu da aurrerapen sozialarekin. Zer dela eta egingo lioke ihes zori horri berari Errusiak baino ez?

Nire erantzuna: Errusian, aparteko zirkuntantzien konbinazio bati esker, oraindik eskala nazionalen ezarritako landa-komuna pixkanaka askatu daitekeelako bere jatorrizko ezaugarrietatik eta zuzenean garatu ekoizpen kolektiboaren osagai gisa eskala nazionalen. Hain zuzen ere, ekoizpen kapitalistaren garaikidea izateari esker bereganatu ditzake bere lorpen positibo guztiak, bere gorabehera [izugarri] lazgarri guztietatik igaro beharrik gabe. Errusia ez da mundu modernotik isolaturik bizi; eta ez da, Ekialdeko Indiak bezala, atzerriko botere konkistatzaile baten mende erori.

Sistema kapitalistaren jarraitzaile errusiarrek garapen horren aukera teorikoa ukatuko balute, galdera hau luzatuko nieke: Errusia behartua izan al da, Mendebaldea izan den gisara, industria mekanikoaren

30 *Itzle. oh.:* Aipu hau jatorrizko testutik itzuli da, *Kapitalaren* edizio frantsesetik.

inkubazio aldi luze bat igarotzera makinez, lurrunontziez, trenbideez eta abarrez baliatu ahal izateko? Azal diezadatela, halaber, nola moldatu diren truke-mekanismo osoa (bankuak, kreditu-enpresak, eta abar) begien itxi-ireki batean haien herrian barneratzeko, Mendebaldeak mendeak behar izan dituenean horiek apailatzeko?

Baldin eta, emantzipatzeko unean, landa-komunak hasiera-hasieratik oparotasun baldintza normaletan ezarriak izan balira; are, baldin eta, zor publiko itzela —gehienbat laborarien kontura ordaindurikoa—, gainerako beste suma handiekin batera, zeinak Estatuaren bidez —eta betiere laborarien kontura— kapitalista bihurtu ziren «zutabe sozial berriei» eman zitzaizkien; baldin eta gastu horiek guztiek landa-komunaren *ondoko garapenerako* balio izan balute, orduan inorke ez luke egun amestuko komunaren suntsipenaren «halabehar historikoarekin». Denek aitortuko liokete errusiar gizarteari bere burua birsortzeko duen gaitasuna eta oraindik ere erregimen kapitalistak azpiraturiko herrialdeekiko nagusitasun elementua antzemango lukete. [Ekoizpen kapitalistaren garaikide izatea ez zen Errusiako komunari garapenerako osagaiak eman ziezazkiokeen faktore bakarra].

Errusiako komunak (garapenaren bidetik) irauteko beste baldintza bat da, ez soilik ekoizpen kapitalistaren garaikidea izatea, ezpada sistema sozial hori oraindik bere horretan ukigabe zegoen garaitik biziraun duela, zeina, orain, bai mendebaldeko Europan bai Estatu Batuetan, borrokan baitago zientziarekin, herritar-masekin eta berak sortutako ekoizpen indar berberekina [hitz batean, ageriko antagonismoen, gatazken eta aldizkako hondamendien gudu-zelai bihurtu da, zeinak itsuenari ere erakusten baitio ekoizpen-

sistema iragankorra dela, desagertzera kondenatua dagoena giz[arte]{...}].

Hitz batean, bere desagertpenarekin baino amaituko ez den krisian dago, alegia, gizarte modernoak jabetza komunaren eredu «arkaikora» itzultzearekin. Forma hori, autore amerikar batek³¹ dioen bezala —inondik ere joera iraultzaileen susmagarri ez dena eta bere ikerketetan Washingtongo gobernuaren babesa duena—, gizarte modernoak zuzentzen den [«plan gorena»] «sistema berria» «gizarte-forma arkaikoaren berpizkundea [a revival] izango da, forma goren batean [in a superior form]».

Baina orduan, gutxienez, gorabehera horiek eza-gutu beharko genituzke. Ez dakigu ezertxo ere horiei buruz.³² Aldez edo moldez, komuna hori kanpoko zein

31 Lewis Henry Morganen *Ancient Society; or, Researches in the Lines of Human Progress from Savagery, through Barbarism to Civilization* (London, 1877) lanari buruz ari da (Antzinako gizarteak edo giza aurrerapenaren ikerketak basakeriatik barbarismora eta zibilizaziora).

32 Hemen, zirriborroaren 13. orrialdeko zehaztapen hauek gehitu daitezke: «Komunitate primitiboen gainbeheraren historia (akatsa litzateke denak maila berean jarzteak, formazio geologikoak nola, formazio historikoetan ere maila desberdinak baitaude: lehen mailako eraketa, bigarren mailakoa, hirugarren mailakoa, eta abar) idazteko dago oraindik. Orain arte zirriborro eskasak besterik ez dira egin. Baina, nolanahi ere, azterketa nahikoa aurreratua dago honakoa baieztatzeko: 1. komunitate primitiboen bizitasuna askozaz handiagoa zela herri semitekin, greziarrek, erromatarrek eta abarrekin alderatuta eta, *a fortiori*, gizarte moderno kapitalistekin alderatuta; 2. haien gainbeheraren kausak garapen maila jakin batera iristea eragozten zieten datu ekonomikoaren ondorio zirela, egungo Errusiako komunaren testuinguru historikoarekin batera antzekotasunik ez zuten testuinguru historikoaren emaitza. [Idazle burges batzuk, batez ere jatorri ingelesekoek, hala nola Sir Henry Maine, oroz gain sistema kapitalistaren nagusitasuna erakustea eta hura goraiatzeko dute helburu. Sistema honekin maiteminduta dauden pertsonak, ez dira gai ulertzeko...]. Erne ibili beharra dago komunitate primitiboek gainean burgesek idatzitako istorioak irakurtzean. Ez dute atzera egiten [ezeren aurrean], ezta faltsukeriaren aurrean ere. Sir Henry Maine, kasurako, gobernu ingelesaren kolaboratzaile sutsua izan zen Indiako komunitateen suntsipen bortitzean, eta hipokrisiaz kontatzen digu gobernuak komunitate haiei laguntzeko egindako ahalegin noble guztiek porrot egin zutela lege ekonomikoaren bidezko indarren kariatz!

barneko etengabeko gerren artean galdu egin zen. Segur aski, heriotza bortitzez hilko zen germaniar tribuak Italia, Espainia, Galia eta abar konkistatzera etorri zirenean. Eredu arkaikodun komuna ez zen jadanik existitzen. Alabaina, bi gertakarik frogatzen dute bere *berezko bizitasuna*. Badira adibide sakabanatu batzuk, Erdi Aroko gorabehera guztiak gaingitu eta gaur egun arte bizirik iraun dutenak, esaterako, ene sorterrian, Treveris eskualdean. Baina, garrantzitsuena zera da: hain ongi markatu ditu bere ezaugarriak ordezkatu duen komunan —zeinean landu daitezkeen lurrak jabetza pribatu bihurtu diren eta, aitzitik, basoek, larreek, erabilerarik gabeko lurrek eta abarrek jabetza komunalekoak izaten jarraitzen duten—, ezen Maurerrek, bigarren mailako eraketa duen komuna hori [jatorri berriagokoa] deszifratuz, prototipo arkaikoa berreraiki ahal izan baitzuen. Bertatik jasotako ezaugarri bereizgarriei esker, germaniarrek konkistatzen zituzten herrialde guztietara eramandako komuna berria askatasunerako eta herri-bizitzarako gune bakar bihurtu zen Erdi Aro osoan zehar.

Tazitoren garaiaz geroztik ez dakigu ezer [germaniar] [landa-eremuk] [forma arkaikodun] komunaren bizimoduaz, ez eta haren desagertzeko moduaz eta garaiaz ere, baina, bederen, abiapuntua ezagutzen dugu Julio Zesarren kontakizunari esker. Haren garaian, jadanik, urtero banatzen zen [landu zitekeen] lurra, baina germaniar konfederazio [ezberdinetako] kideen³³ [Geschlechter] eta tribuen artean, eta ez oraino komuna bateko kide indibidualen artean. Bada, Germanian, [laborantza-] *landa-komuna* eredu arkaikoago batetik sortu zen. Ez zen Asiatik inportatua izan, berezko garapenaren emaitza izan zen. Han, Ekialdeko Indietan,

33 Itzle. *oh.*: Frantsesez «gentes» dio.

oraindik ere aurki daiteke, betiere eraketa arkaikoaren azken *akabera* edo azken aldi gisa.

Ikuspuntu teoriko hutsetik epaitzeko [«landa-komunaren»] patu posibleak, hau da, bizi-baldintza normalak lituzkeela suposatuta, «laborantza-komuna» eredu arkaikoenetatik bereizten dituen ezaugarri bereizgarri batzuk aipatu behar ditut orain.

Lehen-lehenik, antzinako komunitate primitibo guztiak beren kideen berezko ahaidetasunean oinarritzen ziren. Lotura sendo baina hertsia hori hautsita, laborantza-komunak gaitasun handiagoa du egokitze-ko, hedatzeko eta kanpotarrekin harremanak izateko.

Gainera, bertan, etxea eta haren osagarria, eskorta, nekazaritza ekoizleen jabetza pribatukoak ziren jadanik; aldiz, nekazaritza bera iritsi baino askoz lehenago etxe komuna aurreko komunitateen oinarri materialetakoa bat zen.

Azkenik, laborantza lurra jabetza komunalekoa izaten jarraitzen badu ere, aldian-aldian laborantza-komunako kideen artean banatzen da, nekazaritza ekoizle bakoitzak bere kontura ustiatzen dituelarik dagozkion soroak eta modu indibidualean fruituez jabetzen delarik. Komunitate arkaikoagoetan, berriz, ekoizpena amankomunean egiten zen eta produktua zen banatzen zen bakarra. Jatorrizko ekoizpen kooperatibo edo kolektibo eredu hori, jakina, isolaturiko norbanakoen ahuleziaren ondorio izan zen, eta ez ekoizpen bideen sozializazioaren emaitza.

Erraz ulertzen da «laborantza-komunak» berezko duen dualismoak bizitasun kartsua eman diezaiokeela; izan ere, alde batetik, jabetza komunak eta haren emaitza diren harreman sozial guztiek oinarri sendoa ematen diote eta, bestetik, etxe pribatuak, landu daitezkeen lurren laborantza partzelarioak eta

fruituen jabetze pribatuak indibidualtasunaren garapena ahalbidetzen dute, eta hori bateraezina da komunitate primitiboagoetako baldintzekin. Baina, hori bezain agerikoa da dualismo hori bera denbora-rekin deskonposizio-iturri bilakatu daitekeela. Alde batera utzita aurkako ingurunearen eragina, aberen aberastasunetik abiatzen den eta are jopuen aberastasuna ere onartzen duen ondasun higigarriaren metaketa mailakatu hutsak, ondasun higigarriek nekazaritzan bertan duten esku gero eta nabarmenagoak, eta metaketa horretatik ezin bereiz daitezkeen beste hainbat inguruabarrek, zeinen azalpena luzeegi litzaidakeen, berdintasun ekonomiko eta sozialaren disolbatzaile gisa jarduten dute eta komunan bertan interes-gatazka pizten dute. Lehenik, laborantza-lurrak jabetza pribatu bihurtzen dira eta, azkenerako, baita basoak, larreak, alfer-lurrak eta abar ere, ordurako jabetza pribatuaren eranskin komunal bihurtuak.³⁴ Horrexegatik aurkezten da nonahi «laborantza-komuna» gizartearen eraketa arkaikoaren eredu berrienaren gisan, eta Europa mendebaldeko joera historikoan, bai antzinakoan bai modernoan, laborantza-komunaren

34 Testuaren 12. orrialdean berriz ekartzen du gogoeta hau, moldaketa doi batekin: [Alde batera utzita aurkako ingurunearen ekintza guztiak, garapen mailakaturik, ondasun higigarrien hazkundera, hala nola abereena, zeina ez baitagokio komunari ezpada haren kide indibidualak, eta ahortzi gabe esku partikularretan dauden ondasun higigarriak, hala nola abereen aberastasuna eta batzuetan are jopuena edo esklaboena ere... Osagai higigarriak gero eta esku handiagoa du landa-ekonomian, eta metaketa bakar horrek disolbatzaile gisa balio dezake...]. Alde batera utzita beste edozein osagai kaltegarriaren erreakzioa, aurkako ingurunearena, nahikoa da ondasun higigarrien hazkunde mailakaturik familia jakin batzuen eskuetan, hala nola abereen aberastasuna eta batzuetan are esklaboena edo jopuena ere; aski da metaketa pribatu hori luzara jatorrizko berdintasun ekonomiko eta sozialen disolbatzaile gisa jarduteko eta komunan bertan interes-gatazka pizteko, laborantza-lurren jabetza komunalarekin hasi eta, azkenean, basoen, larreen, alfer-lurren eta abarrenarekin amaitzen dena, jadanik jabetza pribatuaren eranskin komunal bihurtuak.

garaia agertzen da jabetza komuna jabetza pribatu izatera igaro zeneko trantsizio aldi bezala, lehen mailako eraketatik bigarren mailakora igarotzeko aldi gisa. Baina, ba al dago esaterik baldintza orotan [eta testuinguru historiko guztietan] «laborantza-komunaren» garapenak bide hori jarraitu behar duenik? Inondik ere. Haren eraketaren formak honako aukera ametitzen du: edo berekin dakarren jabetza pribatuaren elementua osagai kolektiboari gailentzen zaio, edo azken hau gailenduko zaio lehenari. Dena dago testuinguru historikoaren mende... Bi aterabideak posible dira *a priori*, baina, bistan da, baterako zein besterako testuinguru historiko zeharo desberdinak behar direla.

3) [Errusiako «laborantza-komunara» iritsita, oraingoz, hura abailtzen duten lakeria guztiak bazter utziko ditut. Ondoko garapenerako gaitasunak baizik ez ditut kontuan hartuko, haren forma kolektiboa eta testuinguru historikoa]. Errusia da gaur arte «laborantza-komuna» eskala nazionalen mantendu duen Europako herrialde bakarra. Ez da, Ekialdeko Indiak bezala, atzerriko botere konkistatzaile baten mende erori. Ez da mundu modernotik isolaturik bizi. Alde batetik, lurraren jabetza komunak aukera ematen dio zuzenean eta mailaz maila nekazaritza eredu indibidualista nekazaritza kolektibo bihurtzeko [Mendebaldeko ekoizpen kapitalistaren garaikide izateak bezalaxe, zeinarekin harreman material eta intelektualetan baitago...], eta laborari errusiarrek jada praktikatzen dute zatikatu gabeko soroetan; lurraren konfigurazio fisikoak eskala handiko ustiapen mekanikoa akuilatzen du; laborariak artel kontratuekin duten loturak lan partzelariotik lan kooperatiborako jauzia errazten du eta, azkenik, errusiar gizarteak, hainbeste denboraz haren kontura bizi izan denak, trantsizio horretarako beharrezkoak izan

dituen aitzinamenduak zor dizkio. [Egiazki, lehen urratsa komuna baldintza normaletan ezartzea litzateke, bere *egungo egoera* kontuan hartuta, toki guztietako laborariak baitira bat-bateko aldaketa ororen etsai]. Bestalde, munduko merkatua menderatzen duen mendebaldeko ekoizpenaren [kapitalistaren] *garaikide izateak* aukera ematen dio Errusiari sistema kapitalistaren lorpen positibo guztiak komunan barneratzeko, haren sarde kaudinoetatik igaro beharrik gabe.

«Zutabe sozial berrien» bozeramaileek landa-komuna modernoaren bilakaeraren aukera *teorikoa* ukatuko balute, galdetzea genieke ea Errusia, Mendebaldea izan den gisara, behartua izan ote den industria mekanikoaren inkubazio aldi luze bat igarotzera makinez, lurruntontziez, trenbideez eta abarrez baliatu ahal izateko? Galde geniezaieke, halaber, nola moldatu diren truke-mekanismo osoa (bankuak, kreditu-entresak, eta abar) begien itxi-ireki batean haien herrian barneratzeko, Mendebaldeak [beste nonbait] mendeak behar izan dituenean horiek apailatzeko?

Errusiako «laborantza-komunak» badu zentzu guztietan aurkakoa den ezaugarri bat ahul bihurtzen duena. Bere isolamendua da, komunen bizimoduaren arteko loturarik eza, *mikrokosmos lokalizatu* hori. Ez da nonahi ageri eredu horren ezaugarri immanente gisa, baina kausitzen den leku orotan komunen gainetik nolabaiteko zentraltasuna duen despotismoa sorrarazten du. Ipar Errusiako Errepubliken federazioak frogatzen du isolamendu hori, zeina, hasiera batean, lurraldearen hedadura zabalak eragin bide baitzuen, neurri handi batean mongoliarren inbasioaz geroztik Errusiak jasandako patu politikoek sendotu zutela. Gaur egun, desagerrarazteko oztoporik errazena da. Nahikoa li-

tzateke volost-a,³⁵ gobernu-institutua, komunek berek hautatutako laborarien batzar batekin ordeztearekin, beren interesen aldeko organo ekonomiko eta administratibo gisa.

Ikuspuntu historikotik erreparatuta, baldintza oso onuragarri batek lagundu du «laborantza-komuna» bere ondoko garapenaren bidez mantentzen: ez soilik mendebaldeko ekoizpen kapitalistaren garaikidea izatea eta [horri esker] fruituak bere *modus operandi*ari lotu gabe bereganatu ahal izatea, ezpada kapitalismoa oraindik bere horretan ukigabe zegoen garaitik bizi-raun duela, zeina, orain, bai Mendebaldeko Europan bai Estatu Batuetan, borrokan baitago langile-masekin, zientziarekin eta berak sortutako ekoizpen indarrekin. Hitz batean esanda, bere desagerpenarekin amaituko den krisian dago, hots, gizarte modernoak jabetza eta ekoizpen kolektiboaren eredu «arkaikoaren» goragoko forma batera itzultzearekin.

Ulertzen da komunaren bilakaera mailakatua izango dela eta lehen urratsa baldintza normaletan ezartzea litzatekeela, bere *egungo egoera* kontuan hartuta.

[Eta Errusiako «landa-komunaren» egoera historikoak ez du parekorik. Europan bakarrik iraun du, ez Mendebaldean duela gutxi arte eredu arkaikoko egoeran zeuden miniatura bakan eta bitxien puska sakabanatuen antzera, baizik eta alimaleko Inperio batean hedaturiko herri-bizitzaren ia forma nagusi gisa. Lurraren jabetza komunean jabetze kolektiboaren oinarri {naturala} baldin badu, haren testuinguru historikoak, hots, ekoizpen kapitalistaren garaikide

35 *Itzle. oh.:* Errusieraz «во́лость». Ekialdeko Europako administrazio-unitate txikia, udalerrri edo eskualde mailakoa. Errusiako Inperioan eta Sobietar Batasunaren hastapenetan erabili zen. Nekazari herrixka batzuek osatzen zuten eta kudeaketa organo propioak zituen

izateak, eskala handiko lan komunerako baldintza material guztiak utziko dizkio. Horrenbestez, gai izango da sistema kapitalistaren lorpen positibo guztiak barneratzeko haren sarde kaudinoetatik igaro beharrik gabe. Pixkanaka nekazaritza eredu partzelarioa eskala handiko nekazaritzarekin ordezkatu dezake, Errusiako lurraren konfigurazio fisikoa akuilatzen duten makin bidez. Hartara, gizarte modernoa zuzentzen den sistema ekonomikoaren *abiapuntu zuzena* bihur daiteke, eta itxuraz aldatu aurretik bere buruaz beste egin beharrik gabe. Aitzitik, lehenik baldintza normaletan ezarri beharko litzateke.] [Baina ez da soilik landa-komunak berezko duen dualismoa baztertu behar, zeina saihestu ahalko litzatekeen...].

Baina, bekoz beko, lurraren ia erdia eta zatirik onena eskuetan duen lur-jabetza altxatzen da, Estatuaren jabariak kontuan izan gabe. Horri dagokionez, «landa-komunaren» kontserbazioa bere ondoko garapenaren bidetik Errusiako gizartearen mugimendu orokorrarekin nahasten da, zeinaren birsorkuntza prezio horretan baitago.

[Soilik begiratuta] Soilik ikuspegi ekonomikoa begiratuta ere, Errusia bere laborantza-(..?..)(-e)tik³⁶ atera daiteke bere landa-komunaren bilakaeraren bidez; alferrik saiaturiko litzateke bertatik ateratzen ingeles estilora kapitalizatutako tributu [barneratzea]-ren bidez, zeina herrialdeko nekazaritza baldintza guztien batu-rak nardatzen baitute.

[Hala, altxamendu orokor baten erdian bakarrik hautsi daiteke «landa-komunaren» isolamendua, komun en bizimoduaren arteko loturarik eza, hitz batez,

36 Hitz hau irakurtzeazina da Marxen testuan; baliteke «cul-de-sac» esan nahi izatea. Hirugarren zirriborroan «impassé» ageri da haren ordeez.
Itzle. oh.: Bi hitzok esanahi antzekoa dute: «bide itsu» edo «ataka gaizto».

bere mikrokosmos lokalizatua, ekimen historikoa {oro} galarazten diona].

[Teorikoki, Errusiako «landa-komunak» bere lurzorua mantendu dezake, bere oinarria garatuz; hau da, lurraren jabetza komuna, eta berekin dakarren jabetza pribatuaren printzipioa ezabatuz; gizarte modernoa zuzentzen den sistema ekonomikoaren *abiapuntu zuzena* bihur daiteke; itxuraz aldatu dezake aurretik bere buruaz beste egin beharrik gabe; gizateria aberastu duten ekoizpen kapitalistaren fruituez baliatu daiteke erregimen kapitalistatik igaro gabe, zeinak, bere *irau-pen* posiblearen ikuspuntutik soilik begiratuta, apenas duen baliorik gizateriaren bizitzan. Baina, teoria hutsetik errusiar errealtatera jaitsi beharra dago].

Gaur egun Errusiako «landa-komuna» abailtzen duten miseria guztiez abstraituta eta bere eraketa forma eta ingurune historikoa soilik kontuan hartuta, lehen begiratuan agerikoa da bere funtsezko ezaugarrietako batek, hots, lurraren jabetza komunak, ekoizpen eta jabetze kolektiboaren berezko oinarria osatzen duela. Gainera, errusiar laborariek *artel-ekin* duten loturak lan partzelariotik lan kolektiborako jauzia erraztuko lieke, zeina jada neurri batean praktikatzen duten zatikatu gabeko soroetan, belar-idortzeetan eta interes orokorreko beste proiektu batzuetan. Baina, lan kolektiboak nekazaritzan bertan lan partzelarioa —jabetze pribatuaren moldea— ordezkatu ahal izateko, bi gauza behar dira: halako eraldaketa baterako behar ekonomikoak eta hura burutzeko baldintza materialak.

Behar ekonomikoak agerikoak izango dira «landa-komuna» baldintza normaletan ezartzen den unetik bertatik; hau da, bere zamak aldaratu eta laborantza-lurrak hedadura normala hartu bezain laster. Denbora igaro da Errusiako nekazaritzak lurra besterik eskatzen

ez zuenetik eta nekazaritza ekoizleak, lanabes primitibo samarrez armaturik [eta lurraren emankortasuna]... Denbora hori hainbat azkarrago iragan zen nekazaritza ekoizleen zapalkuntzak beren soroa kutsatzen eta antzutzen duelako. Orain eskala handian antolatutako lan kooperatiboa behar du. Gainera, bere hiru desiatinak³⁷ lantzeko beharrezko dituen gauzak falta zaizkion nekazaria aurreratuago egongo al da hamar aldiz desiatina gehiago edukita?

Baina, non aurkitu lanabesak, ongarriak, metodo agronomikoak eta abar, lan kolektiborako ezinbestekoak diren bitarteko guztiak? Horra hor Errusiako «landa-komunaren» nagusitasun handia mota bereko komuna arkaikoen aldean. Bera da Europa osoan eskala handi eta nazionalen iraun duen bakarra. Horrela, testuinguru historiko batean kokatzen da, non ekoizpen kapitalistaren garaikide izateak lan kolektiborako baldintza guztiak eskaintzen dizkion. Gai da sistema kapitalistaren lorpen positibo guztiak barneratzeko haren sarde kaudinoetatik igaro beharrik gabe. Errusiako lurraren konfigurazio fisikoak makinaren bidezko nekazaritza-ustiapena akuilatzen du, eskala handian antolatua eta lan kooperatiboak [eskuetan] maneiatutakoa. Hasierako gastuei dagokienez —gastu intelektual eta materialak—, Errusiako gizarteak «landa-komunari» zor dizkio, haren kontura bizi izan baita hainbeste denboran, eta bertan bilatu behar du bere «osagai berriztatzailea».

«Landa-komunaren» garapen horrek gure garaiko korrante historikoari erantzuten diola erakusten duen frogarik garbiena da ezen ekoizpen kapitalistak goraldirik handiena izan duen herrialdeetan, hots, Eu-

37 Itzle. oh.: Antzina Errusian nekazaritza-azalera neurtzeko erabiltzen zen unitatea, 1,092 ha-koa.

ropako eta Amerikako herrialdeetan, halabeharrezko krisia jasan duela, bere desagertpenarekin amaituko den krisia, gizarte modernoa eredu arkaikoaren goragoko forma batera itzultzearekin: ekoizpen eta jabetze kolektiboa.

4) [Teoriatik errealitatera jaitsez gero, inork ezingo du ezkutatu gaur egun Errusiako komuna indar eta interes boteretsuen konspirazio baten aurrean bekoz beko dagoenik. Estatuaren etengabeko ustiapenez aparte, horrek ahalbidetu du, laborarien kontura, sistema kapitalistaren zati bat barneratzea: burtsa, bankuak, trenbideak, merkataritza...].

Bere burua garatu ahal izateko, oroz gainetik bizi behar du, eta inork ezingo luke ezkutatu une honetan txex «landa-komunaren» bizitza arriskuan dagoela.

[Ondo asko dakizu gaur egun interes boteretsuen konspirazio batek arriskuan jartzen duela Errusiako komunaren existentzia bera. Estatuaren zuzeneko gehiegikeriek zantutua, iruzurrez esplotatua kanpotar kapitalistengatik, merkataritzaengatik, eta abar, eta «lur-jabeengatik», eta, horren gainetik, herrietako lurkuriak azpiz jana ere bada, ezarri duten egoeraren kariaz bere baitan sortutako interes-gatazkengatik].

Nekazaritza ekoizleak desjabetzeko ez da beharrezkoa haien lurretatik kanporatzea, Ingalaterran eta beste leku batzuetan egin zen bezala; ezta jabetza komuna ukase³⁸ baten bidez deuseztatzea ere. Zozte laborariei nekazaritza lanaren emaitza neurri batetik gora erauztera, eta zuen jendarmeria eta armada gorabehera, ez duzue lortuko haien soroetara kateatzerik. Erromatar Inperioaren azken garaian, probintzietako

38 *Itzle. oh.:* Errusiar Inperioan tsarrak, gobernuak edo buruzagi erlijiosoak emandako lege-agindu edo dekretu ofiziala.

dekurioiek,³⁹ ez laborariet baizik eta lur-jabeek, beren etxeetatik ihes egin zuten, beren lurak abandonatu zituzten, esklabo gisa ere saldu zuten beren burua, eta hori guztia haiek gupidarik eta errukirik gabe estutze-ko aitzakia ofiziala besterik ez zen jabetza bat gainetik kentzeko.

Laborarien emantzipazioa delakoaz geroztik, Estatuak Errusiako komuna egoera ekonomiko anormaletan ezarri zuen eta ordutik ez dio utzi bere eskuetan bilduriko indar sozialekin estutzeari. Zerga-gehiegikeriek azkeneraino ahiturik, materia bizigabe bihurtu zen, erraz ustiagarria azpiko negozioaren, lurren jabetzaren eta lukurreriaren bidez. Kanpotik etorritako zapalkuntza horrek komunaren baitan piztu zuen jadanik presente zegoen interes-gatazka, eta azkar garatu zituen bere deskonposizioaren ernamunak. Baina hori ez da dena. [Laborarien kontura, negutegi batean nola hasi ziren sistema kapitalistak errazen egokitu zitzakeen trunpiloak, hala nola burtsa, espekulazioa, bankuak, akzio bidezko sozietateak, trenbideak, zeinen defizita kitatzen baitu eta enpresarientzako irabaziak aurreratzen, eta abar, eta abar] Laborarien kontura, Estatuak [laguntza eman zuen] negutegi batean nola hazi zituen Mendebaldeko sistema kapitalistaren adaxkak, zeinak, nekazaritzaren oinarri produktiboak inola ere garatu gabe, egokienak baitira bitartekari ez-produktiboen bidezko fruituen lapurreta errazteko eta azkartzeko. Horrela elikatu zuen «landa-komunaren» odol pobretua xurgatzen zuten bizkarroi kapitalista berrien aberastasuna.

... Hitz batean esanda, Estatuak [bitartekari gisa jardunez] laguntza eman zuen bitarteko tekniko

39 *Itzle. oh.:* Erromatar Inperioan, probintziako hirietako udal-kontseiluko kideak. Goi klasekoak ziren, hirietako biztanlerik aberatsenak.

eta ekonomikoen garapen goiztiarrerako, nekazaritza ekoizleen ustiapena errazteko, hau da, Errusiako indar produktiborik handienarena, eta «zutabe sozial berriak» aberasteko.

5) [Lehen begiratuan ikus daiteke aurkako indar horien lehia, Errusiako indar produktibo handiena diren nekazaritza ekoizleen esplotazioa errazten eta azkartzen duena].

[Lehen begiratuan ikus daiteke aurkako indarren lehia horrek, erreakzio indartsurik izan ezean, gauzen indar soilagatik komuna hondamendira eramango lukeela nahitaez].

Indar suntsitzaileen lehia horrek, erreakzio indartsu batek hautsia ez bada bederen, landa-komunaren heriotza ekarriko du berez.

Baina, galdetu beharra dugu: zer dela eta aurkitzen ote dute interes horiek guztiek (gobernuaren zaintzapean dauden industria handiak barne) hain onuragarria landa-komunitatearen egungo egoera? Zergatik konspiratzen dute nahitara urrezko arrautzak erruten dituen oiloa hiltzeko? Hain zuzen ere, sentitzen dutelako «egungo egoera» jada ez dela jasangarria eta, ondorioz, hura ustiatzeko egungo modua [ezta ere] zaharkitua dela. Nekazaritza ekoizleen miseriak lurra kutsatu du dagoeneko, eta berau antzutzen ari da. Uzta onak [urtaro onetan noizbehinka lurrari erauzten ahal zaizkienak] goseteekin elkartzen dira. Esportatu beharrean, Errusiak laboreak inportatu behar ditu. Azken hamar urteetako batez bestekoak erakusten du nekazaritza-ekoizpena ez dela soilik mantsotu, atzera ere egiten ari dela. Orogen buruan, lehen aldiz, Errusiak laboreak inportatu behar ditu esportatu beharrean. Beraz, ez dago denborarik galtzeko. Amaiera eman behar zaio egoerari. Gutxi-asko dirudunak diren labo-

rarien gutxiengoa landa-klase ertain gisa eratu behar dira eta, gehiengoa, itzulingururik gabe, proletario [soldatapeko]. Horretarako, «zutabe sozial berrien» bozeramaileek eurek komunari eragindako gaitzak salatzen dituzte, haren endekatzearen beste hainbat sintoma natural bezala.

Hainbeste interes anitzentzat eta, batez ere, Alexandro II.aren inperio onberaren pean eraikitako «zutabe sozial berrientzat» onuragarria baldin bada «landa-komunaren» *egungo egoera*, zergatik konspiratuko lukete nahitara haren heriotzaren aurka? Zergatik salatzen dituzte bere bozeramaileek komunari eragindako gaitzak, haren iraungitze naturalaren froga ukaezinak bailiran? Zergatik hil ote nahi dute urrezko arrautzen oiloa? Besterik gabe, gertakari ekonomikoek, zeinen analisia luzeegi litzaidakeen, misterioa argitu dutelako, alegia, agerian utzi dutelako *komunaren egungo egoera ez dela jada jasangarria*, eta gauzen premia hutsagatik zaharkitua geratu dela herritar-masa ustiatzeko *egungo modua*. Horrenbestez, zerbait berria behar da, eta hainbat formatan antzematen den berritasunak honako honetan amaitzen du beti: jabetza komuna abolitzean, gutxi-asko dirudunak diren nekazarien gutxiengoa landa-klase ertain gisa eratzea ahalbidetzean, eta gehiengo zabala itzulingururik gabe proletario bihurtzean.

[Ezin da ezkutatu] Alde batetik, «landa-komuna» azkenetan dago, eta, bestetik, konspirazio indartsu bat du zelatan hari azken kolpea emateko. Errusiako komuna salbatzeko, Errusiako Iraultza behar da. Gainera, indar politiko eta sozialen jabe direnek ahal duten guztia egiten dute masak halako hondamendi baterako prestatzeko. Komuna odolusten eta torturatzen duten aldi berean, bere lurra antzutzen eta pobretzen duten

bitartean, «zutabe sozial berrien» lekaio jantziek ironikoki izendatzen dituzte eragin dizkioten gaitzak, haren berezko endekatze ukaezinaren beste hainbat sintoma bezala, heriotza naturalez hiltzen ari dela diote eta hobe litzatekeela bere agonia laburtzea. Jada ez da konpondu beharreko arazo bat; ezpada garaitu beharreko etsaia. Beraz, jada ez da arazo teoriko bat: [konpondu beharreko afera da, garaitu beharreko etsaia besterik ez da]. Errusiako komuna salbatzeko, Errusiako Iraultza behar da. Gainera, Errusiako gobernuak eta «zutabe sozial berriek» ahal duten guztia egiten dute masak halako hondamendi baterako prestatzeko.

Iraultza gertatu behar den unean gertatzen bada, bere indar guztiak biltzen baditu [baldin eta Errusiako gizartearen zati adimentsuak] [baldin eta Errusiako inteligentziak herrialdeko indar bizi guztiak biltzen baditu] landa-komunaren garapen askea bermatzeko, azken hau laster garatuko da errusiar gizartearen osagai birsortzaile gisa eta erregimen kapitalistak azpiraturiko herrialdeekiko nagusitasun elementu gisa.

HIRUGARREN ZIRRIBORROA

Herritar maitea,

Otsailaren 16ko zure gutunean proposaturiko gaiak sakonki jorratzeko, gauzen xehetasunetan sartu eta premiazko lanak eten beharko nituzke, baina, espero dut ohore handiz igortzen dizudan azalpen laburra aski izatea nire ustezko teoriari buruzko gaizki ulertze guztiak uxatzeko.

I) Ekoizpen kapitalistaren genesisia aztertzean, honakoa esan izan dut: «Sistema kapitalistaren funtsean, beraz, ekoizleen eta ekoizpen-bitartekoen bereizketa erradikala dago ... bilakaera horren guztia-
ren oinarria *nekazaritza ekoizleen desjabetzea* da» Ez da oraino Ingalaterran baizik modu erradikalean egikaritu... Baina Mendebaldeko Europako beste herrialde guztiak bide beretik doaz.» (*Kapitala*, ed. frantsesa, 315.or).

Beraz, mugimendu horren «halabehar historikoa» berariaz mugatua da Mendebaldeko Europako herrialdeetara. [Orduan, kausa.] Murrizketa horren zergatia XXXII. kapituluko pasarte honetan adierazten da: *Jabetza pribatua, lan pertsonalean oinarritua, [...] jabe-*

tza pribatu kapitalistak ordezkatuko du, zeina besteren lanaren esplotazioan, hots, soldatapeko langileen esplotazioan, oinarritzen baita» (l.c. 340. or.)

Mendebaldeko mugimendu horretan, beraz, *jabetza pribatu mota bat beste jabetza pribatu mota batean eraldatzen da*. Laborari errusiarren kasuan, aitzitik, *haien jabetza komuna jabetza pribatu bihurtu beharko litzateke*. Eraldaketa horren halabeharra baieztatu zein ukatu, aldeko zein kontrako arrazoiek ez dute zerikusirik erregimen kapitalistaren genesiari buruzko nire analisiarekin. Goitik jota ondoriozta liteke, Errusiako laborarien gehiengo zabalaren egungo egoera kontuan harturik, lur-jabe txiki bihurtzea ez litzatekeela izango haien desjabetze azkarraren aitzinsolasa besterik.

II) Errusiako komunaren aurka aurkeztu den argudiorik serioena honakoa da:

Egizue denboran atzera mendebaldeko gizarteetan jatorriraino, eta orotan aurkituko duzue lurraren jabetza komuna; orotan desagertu da aurrerapen sozialarekin; beraz, ezingo lioke ihes egin patu horri berari Errusiak baino ez.

Ez dut arrazonamendu hori kontuan hartuko [Europari begiratzen dion] Europako esperientzietan oinarritzen den heinean. Ekialdeko Indiei dagokienez, esaterako, Sir H. Mainek eta gisa bereko beste batzuek izan ezik, mundu guztiak daki bertan lurraren jabetza komunaren ezabapena ingelesen bandalismoaren ondorio izan zela, zeinak ez baitzuen herri indigena aurrera bultzatu, atzera baizik.

Jatorrizko komunitate guztiak ez dira patroï berari jarraiki eraiki. Haien osotasunak, aitzitik, eredu eta garai desberdinetako gizarte-taldekatze desberdinen segida osatzen du, eboluzioaren ondoz ondoko faseen adierazle. *Laborantza-komuna* deritzon eredu horieta-

ko bat *Errusiako komunarena* ere bada. Mendebaldean duen baliokidea *germaniar komuna* da, oso oraintsukoa. Julio Zesarren garaian oraino jaio gabea zen, eta tribu germaniarrak Italia, Galia, Espainia eta abar konkistatzera joan zirenean desagertua zen ordurako. Julio Zesarren garaian, jadanik, urtero banatzen zen landu zitekeen lurra taldeen, *kideen*⁴⁰ eta *tribuen* artean, baina ez oraino komuna bateko kide indibidualen artean; segur aski laborantza ere taldeka egingo zen, komunean. Germaniar lurrean bertan, eredu arkaikoagoa zuen komunitate hori berezko garapenaren bidez *laborantza-komuna* bihurtu zen, Tacitok deskribatu antzera. Bere garaiaz geroztik bistatik galdu dugu. Etengabeko gerra eta migrazioen artean galdu zen ororen isilik; segur aski heriotza bortitzez hilko zen. Baina bi gertakari ukaezinek frogatzen dute bere *berezko bizitasuna*. Eredu horren adibide sakabanatu gutxi batzuk Erdi Aroko gorabehera guztiak gainditu eta gaur egun arte bizirik iraun dute, esaterako, ene sorterrian, Treveris eskualdean. Baina, hori baino garrantzitsuagoa zera da: «laborantza-komuna» horren aztarna aurkitzen dugula, beragandik sortutako komuna berrian hain ongi markatua, ezen Maurerrek, azken hau deszifratuz, lehenengoa berreraiki ahal izan baitzuen. Komuna berria, non laborantza-lurra *jabetza pribatu* gisara nekazaritza ekoizleei zegokien eta basoak, larreak, alfer-lurrak eta abar jabetza komunekoak izaten jarraitzen zuten, germaniarrek eraman zuten konkistatzen zituzten herrialde guztietara. Bere prototipotik jasotako ezaugarriei esker, Erdi Aro osoan zehar askatasunerako eta herri-bizitzarako gune bakarra bihurtu zen.

40 *Itzle. oh.*: Frantsesez «gentes» dio.

«Landa-komuna» Asian ere ageri da, afganiar herrian eta abar, baina, nonahi aurkezten da *eredu berrienaren gisara*, eta, nolabait esateko, gizarteen *eraketa arkaikoaren* azken hitzaren gisara. Gertakari hori azpimarratzeko sartu izan naiz germaniar komunaren inguruko zenbait xehetasunetan.

«Laborantza-komuna» eta komunitate arkaikoenak desberdintzen dituzten ezaugarri bereizgarrienak aztertzea dagokigu orain.

1) Gainerako komunitate guztiak kideen arteko odol-ahaidetasunean oinarritzen dira. Ezin da haien parte izan senide natural edo adoptatua izan gabe. Genealogia zuhaitz baten egitura dute. «Laborantza-komuna»⁴¹ izan zen odol-lokarriek estutzen ez zuten gizon askeen lehen gizarte-taldea.

2) Laborantza-komunan, etxea eta haren osagarria, eskorta, nekazaritza ekoizleenak dira. *Etxe komuna* eta *bizileku kolektiboa*, aitzitik, komunitate primitiboagoen oinarri ekonomikoa ziren, artzaintza edo laborantza bizimodua iritsi baino askoz lehenagotik ere. Egiazki, badira nekazaritza-komunak non etxeak, bizileku kolektibo izateari utzi dioten arren, aldian-aldian jabez aldatzen duten. Banakako usufuktua jabetza komunarekin konbinatzen da horrela. Baina komuna horiek oraindik ere beren jaiotza-marka daramate: komunitate arkaikoago batetik laborantza komunara iragateko trantsizio-egoeran daude.

3) Laborantza-lurra, ezin besterenduzko jabetza komuna, aldian-aldian banatzen da laborantza-komunako kideen artean, bakoitzak bere kontura ustiatzen dituelarik dagozkion soroak eta fruituez bakarka ja-

41 Marxek arkatx urdinez zuzendu zituen aurreko esaldia eta honen hasiera. Jatorrizko bertsioa hau da: «Organismo hauek genealogia zuhaitz baten egitura dute. Naturarekin lotzen zituen zilbor-hestea moztuta, 'laborantza-komuna' bihurtzen da, eta abar»

betzen delarik. Komunitate primitiboenetan, lana amankomunean egiten zen eta produktu komuna, erreprodukziorako gordetako kuota salbu, kontsumoaren beharren arabera banatzen zen.

Erraz ulertzen da laborantza-komunaren eraketak berezko duen *dualismoak* bizitasun kartsua eman diezaiokeela. Berezko ahaidetasunaren lotura sendo baina hertsiez libratuak, lurraren jabetza komunak eta haren emaitza diren harreman sozialek oinarri sendoa bermatzen diote; eta, aldi berean, etxeak eta eskortak, familia indibidualaren jabari eksklusibokoak, landu daitezkeen lurren laborantza partzelarioak eta bere fruituen jabetze pribatuak [egiturarekin] komunitate primitiboagoen organismoarekin bateraezina den indibidualtasunari bultzada ematen diote.

Baina, hori bezain agerikoa da denborarekin dualismo hori bera deskonposizioaren ernamuin bihurtu daitekeela. Kanpotik datozen eragin gaizto guztiez aparte, komunak errailetan daramatza bere osagai kaltegarriak. Ikusi dugun antzera, lur-jabetza pribatua dagoeneko sartua da eskortadun baserri gisa, zeina lur komunaren kontrako erasoak prestatzeko gotorleku bilakatu daitezkeen. Baina funtsezkoa lan partzelarioa da, jabetze pribatuaren iturri gisa. Ondasun higigarrien metaketari bide ematen dio, hala nola abereena, diruarena, eta batzuetan are esklaboena edo jopuena ere. Komunak ezin kontrola dezakeen jabetza higikor horrek, zeina truke indibidualen kausa baita eta non amarrua eta mentura aise diren, gero eta eragin handiagoa izango du landa-ekonomia osoan. Horra hor jatorrizko berdintasun ekonomiko eta sozialaren disolbatzailea. Osagai heterogeneoak barneratzen ditu, eta horrek komunaren baitan pizten ditu interes-gatazkak eta grina eraso egiteko lehenik laborantza-lurren jabe-

tza komunari eta ondotik basoen, larreen, alfer-lurren eta abarren jabetzari, zeinak, behin jabetza pribatuaren *eranskin komunal* bihurturik, luzarora haren parte izatera igaroko baitira.

Gizartearen eraketa [arkaikoaren] primitiboaren azken fase [eta berrienaren] gisa, laborantza-komuna [trantsizioa berez ahalbidetzen duena] aldi berean bigarren mailako eraketara igarotzeko trantsizio aldia da eta, hartara, jabetza komunean oinarritutako gizartetik jabetza pribatuan oinarritutako gizartera iragateko aldia. Bigarren mailako eraketak, jakina, esklabotzan eta joputzan oinarrituriko gizartearen multzoa hartzen du barne.

Baina, ba al dago esaterik laborantza-komunaren ibilbide historikoak aterabide hori izan behar duela halabeharrez? Inondik ere. Sortzetikako dualismoak beste aukera bat ametitzen du: bere jabetzaren elementua osagai kolektiboari gailenduko zaio, ala azken hau gailenduko zaio lehenari. Dena dago testuinguru historikoaren mende.

Utz ditzagun, oraingoz, bazter batean Errusiako komuna abailtzen duten lazeria guztiak, soilik kontuan hartzeko haren eboluziorako aukerak. Paregabeko egoeran dago, historian aurrekaririk gabekoa. Europan, bera da alimaleko inperio batean landa-bizitzaren forma organiko eta nagusia oraino mantentzen duen bakarra. Lurraren jabetza komunak eskaintzen dio jabetze kolektiborako oinarri naturala eta haren testuinguru historikoak, hots, ekoizpen kapitalistaren garaikide izateak, eskala handian antolatutako lan kooperatiborako baldintza material guztiak uzten dizkio. Hortaz, sistema kapitalistaren lorpen positibo guztiak barnera ditzake haren sarde kaudinoetatik igaro beharrik gabe. Pixkanaka nekazaritza eredu par-

tzelariora nekazaritza konbinatuarekin ordezkatu dezake, Errusiako luraren konfigurazio fisikoa akuilatzen duten makinaren bidez. Aldez aurretik bere egungo forman baldintza normalean ezarria izan ondoren, gizarte modernoa zuzentzen den sistema ekonomikoaren *abiapuntu zuzena* bihur daiteke, eta itxuraz aldatu aurretik bere buruaz beste egin beharrik gabe.

[Baina, bekoz beko, luraren ia erdia atzaparretan duen lur-jabetza altxatzen da, {bere zatirik onena, Estatuaren jabariak kontuan izan gabe}, eta bere zatirik onena. Horri dagokionez, «landa-komunaren» kontserbazioa bere ondoko garapenaren bitartez Errusiako gizartearen mugimendu orokorrarekin nahasten da, zeinaren birsorkuntza prezio horretan baino ez baitago. {Soilik ikuspegi ekonomikotik begiratuta ere... Errusia alferrik saiatuko litzateke bere ataka gaizto horretatik ateratzen, ingeles estiloko akura kapitalistaren bidez, zeina herrialdeko nekazaritza baldintza guztiek nardatzen baitute. Ingelesek ere antzeko eginahalak egin zituzten Ekialdeko Indietan; bertako nekazaritza hondatzea eta goseteen kopurua eta intentsitatea areagotzea besterik ez zuten lortu}.

Ingelesek ere halako ahaleginak egin zituzten Ekialdeko Indietan, bertako nekazaritza hondatzea eta goseteen kopurua eta intentsitatea areagotzea besterik ez zuten lortu.

Baina, eta komuna kolpatzen duen anatema? Bere isolamendua, komunaren bizimoduaren arteko loturarik eza, orain arte ekimen historiko oro galarazi dion *mikrokosmos* lokalizatu hori? Errusiar gizartearen asaldura orokor baten erdian desagertuko litzateke.⁴²

42 Hirugarren zirriborroaren amaiera aparteko orri batean idatzia izan zen, aipamen honekin: AMAIERA. Aurreko testua, zuzenketa ugariduna hura ere, oso-osorik marratutako pasarte baten aurretik doa. Aitzinean aurkeztutako ideiak laburbiltzeko saiakera da. Hona hemen Marx

Errusiar laborariek *artel*-ekin duten loturak lan partzelariotik lan kooperatiborako jauzia bereziki erraztuko lieke, zeina jada neurri batean aplikatzen duten [zatikatu gabeko soroetan eta interes orokorreko zenbait proiektutan], zelai-ongarritze eta belar-idortzeen gisako proiektu komunaletan eta abar. Zeharo arkaikoa den berezitasun batek, agronomo modernoek mamu beltzak, zentzu horretan konspiratzen du oraino.

Zeinahi herrialdetara heldu eta laborantza-lurrak zatiketa arraro baten arrastoak agerian uzten dituela ikusiz gero, eremu txikiz osaturiko xake-taula baten forma ematen diotenak, ez dago dudarik, horra hor hildako laborantza-komuna baten eremua. Hango kideak, lurren errentaren teoriaren azterketarik egin gabe, ohartu ziren berezko emankortasun eta egoera desberdinetako soroetan gastatutako lan kopuru berak etekin desberdinak emango zituela. Bada, [abantaila ekonomiko berberak ziurtatzearren] lan aukerak berdintzearren, lurra zenbait eskualdetan banatu zuten, lurzorua desberdintasun natural eta ekonomikoek arabera, eta gero, eskualde zabalago horiek guztiak, laborari adina lursailetan banatu zituzten berriro. Ondoren, bakoitzak lur puska bat jaso zuen eskualde bakoitzean. Esan gabe doa, Errusiako komunak gaur

zaharrena lan egiteko modua erakusten duen pasartea, zirrimarra guztiekin eta deszifratu ahal izan den neurrian:

[Ez gara sartu] [Ez naiz gauzen xehetasunetan sartu, {izan ere, horiek} {zehaztu} nabarmendu besterik ez dut egin I], bakarrik baitzen...

[Nabarmendu besterik ez dut egin] [Ez dut izan] [Saihestu egin dut]

[Gauzen xehetasun {horretan} bakar batean sartu gabe] [Ez nuen]

[Amaitu dut] [Ez dut izan] [Ezaugarri orokor batzuk nabarmentzera mugatu naiz ondo zehazteko]

[1] laborantza-komunak komunitate primitiboek artean hartzen zuen {lekua} leku historikoa; ondoren Errusiako komunaren ohiz kanpoko egoera, zeinak ahalbidetu baitzion] [2] mundu modernoak Errusiako komunari eskaintzen ahal dizkion aisetasun bereziak {bereziak} {ohiz kanpokoak, zeinak} {ebol(uzioa)} Errusiako komunaren gaitasuna ahalbidetuko lukeen] {ohiz kanpokoak} {dagoen lekuan}

arte iraunarazi duen antolamendu honek uzkur egiten diola laborantzaren beharrei [laborantza kolektiboarenei zein banakako laborantza pribatuarenei]. Beste eragozpen batzuez gain, indarra eta denbora xahutzea eskatzen du. [Laborantza kolektiborako abiapuntu gisa ere, abantaila handiak ditu. Handitu laborarien lan-eremua, eta jaun eta jabe izango da]. Haatik, [abiapuntu gisa] laborantza kolektiborako trantsizioari mesede egiten dio, zeinarekiko lehen begiratuan hain uzkur dirudien. Lursaila [...].

LAUGARREN ZIRRIBORROA

1881eko martxoaren 8a
Maitland Park Road 41, Londres Ipar-mendebaldea

Herritar maitea,

Azken hamar urteotan aldian-aldian eraso egi-
ten didan nerbio-eritasun batek eragotzi dit otsailaren
16ko zure gutunari [zeina jasotzeko ohorea izan baitut]
erantzutea.

Damu dut ez naizelako gai izan emateko mahai-
gaineratzeko [adeitasuna izan duzun] ohorea izan
duzun [arazoen] aferaren gaineko idazki labur eta
publikatzeko moduko bat. Duela bi hilabete gai bera-
ri buruzko lan bat hitzeman nion San Petersburgoko
Batzordeari. Bizkitartean, espero dut lerro batzuk aski
izatea nire ustezko [teoriatik ateratako ondorioei] teo-
riari buruzko gaizki ulertzearen gaineko zalantzarik ez
uzteko.

1) *Kapitala* lanean aurkeztutako analisiak, hor-
taz, ez du [batere] inolako arrazoirik ematen Errusiako
komunaren bizitasunaren alde edo kontra egiteko.

[Errusiako komunaren inguruan dudan iritzi pertsonalari dagokionez, zeina urte luzez eta jatorrizko iturriak baliatuz aztertu baitut, hona hemen...].⁴³

Materialak jatorrizko iturrietan bilatuz egin ditudan ikerketa bereziek [honako emaitza honetara eramane naute] sinetsarazi didate komuna hau dela [abiapuntua] euskarria Errusiako birsorkuntza sozialerako [Errusiako gizartearen birsorkuntzarako]. Baina, [jakina, lehen urratsa baldintza normaletan ezartzea litzateke...] funtzio hori bete dezan, lehenik, alde guztietatik jazartzen duten eragin kaltegarriak ezabatu beharko lirateke, eta, ondoren, garapen espontaneorako baldintzak segurtatu.

43 Alferrikako zenbait errepikapen baztertuak izan dira.

KARL MARXEK BIDALITAKO GUTUNA

1881eko martxoaren 8a
Maitland Park Road 41, Londres Ipar-mendebaldea

Herritar maitea,

Azken hamar urteotan aldian-aldian eraso egi-
ten didan nerbio-eritasun batek eragotzi dit otsailaren
16ko zure gutunari erantzutea. Damu dut ez naizela-
ko gai izan emateko mahaigaineratzeko ohorea izan
duzun aferaren gaineko idazki labur eta publikatzeko
moduko bat. Duela bi hilabete gai berari buruzko lan
bat egingo nuela agindu nion San Petersburgoko Ba-
tzordeari. Bizkitartean, espero dut lerro batzuk aski
izatea nire ustezko teoriari buruzko gaizki ulertzearen
gaineko zalantzarik ez uzteko.

Ekoizpen kapitalistaren genesia aztertzean, ho-
nakoa esan izan dut:

«Sistema kapitalistaren funtsean, beraz, ekoiz-
leen eta ekoizpen-bitartekoen bereizketa erradikala
dago ... bilakaera horren guztiaren oinarria *nekazaritza*
ekoizleen *desjabetzea* da. Ez da oraino Ingalaterran bai-

zik modu erradikalean gauzatu... Baina Mendebaldeko Europako beste herrialde guztiak bide beretik doaz.» (Kapitala, ed. frantsesa, 315.or).

Beraz, mugimendu horren «halabehar historikoa» berariaz mugatua da Mendebaldeko Europako herrialdeetara. Murrizketa horren zergatia XXXII. kapituluko pasarte honetan adierazten da:

Jabetza pribatua, lan pertsonalean oinarritua, ... jabetza pribatu kapitalistak ordezkaturiko du, zeina besteren lanaren esplotazioan, hots, soldatapeko langileen esplotazioan, oinarritzen baita» (l.c. 340. or).

Mendebaldeko mugimendu horretan, beraz, *jabetza pribatu mota bat beste jabetza pribatu mota batean eraldatzen da. Laborari errusiarren kasuan, aitzitik, haien jabetza komuna jabetza pribatu bihurtu beharko litzateke.*

Kapitala lanean aurkeztutako analisiak, beraz, ez du Errusiako komunaren bizitasunaren aldeko zein kontrako arrazoirik ematen, baina materialak jatorrizko iturrietan bilatuz egin dudak ikerketa bereziak sinetsarazi dit komuna hau Errusiako birsorkuntza sozialerako euskarria dela, baina, funtzio hori bete dezan, lehenik, alde guztietatik jazartzen duten eragin kaltegarriak ezabatu beharko lirateke, eta, ondoren, garapen espontaneorako baldintzak segurtatu.

Ohorea da niretzako, herritar maitea, zure debotzia izatea.

Karl Marx.

**«OTETXESTVENNIE ZAPISKY»
(ABERRIAREN URTE LIBURUAK) ALDIZKARIAREN
ERREDAKZIOARI GUTUNA⁴⁴**

Bistan da «Karl Marx Zhukovsky jaunaren auzitegian» artikulua egilea gizon argia dela, eta jatorrizko metaketaren nire azalpenean bere ondorioen aldeko pasarte bakar bat aurkitu izan balu, aipatuko zukeela. Halako pasarterik ez dagoenez, bere burua behartua ikusi du bigarren mailako iruzkinez baliatzen, «literato» errusiar baten aurkako nolabaiteko polemika bat, *Kapitalaren* lehen edizio alemanaren eranskinean jasotakoa. Zer aurpegiratzen diot nik idazle horri? Errusiako komuna ez duela aurkitu Errusian, prusiar gobernuaren aholkulari Haxthausen-en liburuan baizik, eta soilik erabili duela argudio gisa Europa zahar ustela paneslavismoaren garaipenaren bidez birsortu behar dela erakusteko. Idazle honi buruz dudan iritzia zuzena edo okerra izan daiteke, baina inola

44 1877ko azaroan, gutuna zuzenean frantsesez idatzia izan zen, nahiz eta Marxek, azkenean, ez zuen sekula igorri (ikus Mikhailovskiy buruzko oharra). *Aberriaren urte liburuak*, Pavel Svininek 1818an San Petersburgon sortutako aldizkari historiko eta literarioak, eragin handia izan zuen herrialdeko eztabaida politikoetan, populistei babesa emateagatik, 1884an debekatu zuten arte. Nikolai Mikhailovsky aldizkariako editore nabarmen eta erradikalenetako bat izan zen.

ere ez du ematen nire ikuspuntuaren gakoa ulertzeko ahaleginak «*rusских ljudej najti dlja sojego otecestva put' razvitija, otlicinyj ot togo, kotorym sla i idët zapadnaja Jevropa*»,⁴⁵ eta abar.

Kapitalaren bigarren edizio alemanaren gibel-solasean —Zhukovsky jaunari buruzko artikulua egileak ezagutzen du, aipatzen duelako— «errusiar jakintsu eta kritikari handi» bati buruz ari naiz, merezi duen begirune handiarekin. Hark artikulua aipagarrietan aztertu izan du Errusiak landa-komuna suntsitzen hasi behar ote duen erregimen kapitalistara igarotzeko, bertako ekonomialari liberalek nahi duten gisara, edo, aitzitik, erregimen horren torturak jasan beharrik gabe bere fruitu guztiak bereganatu ditzakeen, bere oinarri historikoak garatuz. Bera azken irtenbide horren alde mintzo da. Eta, ene kritikari ohoragarriak, bederen, «errusiar jakintsu eta kritikari handi» honi diodan begirunetik auzi honi buruzko bere iritziekin bat natorrela ondorioa ateratzeko bezainbat arrazoiz izango zukeen «literato» eta paneslavistaren aurkako nire polemikatik ondorioztatzeko iritziok arbuiatzen ditudala.

Azkenik, ez dudanez atsegin «ezer asmatetarako uztea», itzuli-mitzulirik gabe arituko naiz. Errusiaren garapen ekonomikoa jakinaren gainean egonda juzgatu ahal izateko, errusiera ikasi nuen eta ondoren urte asko eman nituen gai honi buruzko argitalpen ofizialak eta bestelakoak aztertzen. Ondorio honetara iritsi naiz: Errusiak 1861az geroztik jarraitu duen bidetik jarraitzen badu, historiak inoiz herri bati

45 Pasarte hau, Mikhailovskyren «Karl Marx Zhukovsky jaunaren auzitegian» artikulutik hartua, *Aberriaren urte liburuak*-en¹⁰. zenbakian (1877) argitaratu zen eta Marxen *Œuvres - Économie II* liburukian (Pléiade, 1968, 1553. or.) honela itzulita dago: «zer egin dute errusiarrek beren aberriarentzat Mendebaldeko Europak jarraitu duen eta jarraitzen duen garapen bidez bestelako bat aurkitzeko?».

eskaini dion aukerarik ederrena galduko du eta erregimen kapitalistaren zorigaiztoko gorabehera guztiak pairatuko ditu.

Jatorrizko metaketari buruzko kapituluak Mendebaldeko Europan ordena ekonomiko kapitalistak ordena ekonomiko feudalaren errailetatik ateratzeko egindako bidea markatu besterik ez du egin nahi. Hartara, erakusten du nola, ekoizleak beren ekoizpen bideetatik bereizita, soldatapeko bihurtu ziren (proletario, hitzaren adiera modernoan) eta azken horien jabeak kapitalista. Historia honetan, «eratzeko bidean dagoen klase kapitalistaren aitzinamendurako palanka gisa balio duten iraultza guztiak mugarri dira, bereziki masa handiei ekoizpen eta existentzia bide tradizionalak ebatsi eta, ustekabeen lan merkatura botatzen dituztenak». Baina garapen horren guztiaren oinarria nekazaritza ekoizleen desjabetzea da. Ez da oraino Ingalaterran baizik modu erradikalean gauzatu... baina Mendebaldeko Europako herrialde guztiak bide bereetik doaz», eta abar (*Kapitala*, edizio frantsesa, 315. or.). Kapituluaren amaieran, ekoizpenaren joera historikoa honela laburtzen da: «bere ukapen propioari bide ematen dio naturaren metamorfosian nagusi den halabehar berberarekin»; berak sortu ditu ordena ekonomiko berri baten elementuak, eta, aldi berean, bultzadarik handiena ematen die lan sozialaren ekoizpen-bote-reei eta ekoizle indibidual ororen garapen integralari; jabetza kapitalista, egiazki dagoeneko ekoizpen-modu kolektibo batean oinarritua dena, jabetza sozial baino ezin da bihurtu. Bertan ez dut horren frogarik ematen, baieztapen hori bera aurretik ekoizpen kapitalistari buruzko kapituluetan emandako azalpen luzeen sintesi laburra besterik ez delako.

Orain, nola aplika lezake nire kritikariak zirrimarra historiko hau Errusian? Soilik honela: Errusiak Mendebaldeko Europako nazioen antzeko nazio kapitalista bihurtzeko joera badu —eta azken urteotan zazpi ahalak egin ditu hori lortzera bidean—, ez du lortuko lehenik bere laborarien zati handi bat proletario bihurtu gabe; eta, ondoren, behin sistema kapitalistaren altzora ekarrita, haren lege bihozgabeen mende egongo da, beste herri laño batzuen antzera. Hori da dena. Baina gutxi da nire kritikariaren aburuko. Mendebaldeko Europako ekoizpen kapitalistaren genesiaren inguruko nire zirrimarra historikoa osoki eraldatu beharko luke beste teoria historiko-filosofiko batean, baldintza historikoak zeinahi izanik ere herri guztiei halabeharrez inposatzen zaien ibilbide orokorraren gainekoa, azkenerrako eraketa ekonomiko horretara iristeko, zeinak bermatzen baitu ekoizpen-botereen garapen gorena bezainbeste gizakiaren aitzinamendu osoena. Baina barkamena eskatzen diot. (Ohore eta ahalkeria handiegia litzateke niretzat aldi berean). Jar dezagun adibide bat.

Kapitalaren hainbat lekutan zeharka aipatzen dut antzinako Erromako plebeioek kausitu zuten patua. Jatorriz laborari libreak ziren, nork bere partzelak lantzen zituen, nork bere kontura. Desjabetuak izan ziren Erromako historian zehar. Ekoizpen eta biziraupen bideetatik bereizi zituen mugimenduak berak ekarri zuen lur jabetza handien eraketa eta baita diru-kapital handiena ere. Hala, egun batez, alde batetik zeuden gizon libreak, guztiaz gabeturik beren lan-indarrak salbu, eta, bestetik, lan hori ustiatzeko, eskuratutako aberastasun guztien jabeak. Zer gertatu zen? Proletario erromatarrek ez ziren soldatapeko langile bihurtu, baizik eta *jendaila* alfer, Estatu Batuetako hegoalde-

ko «zuri pobreak» zirelakoak baino doilorrangoak, eta haiekin batera ekoizpen modu bat hedatu zen, ez kapitalista, esklabista baizik. Bada, analogia harrigarriaren elementuek, testuinguru historiko desberdinetan jazarik, emaitza osoki desberdinak ekarri zituzten. Garapen horietako bakoitza beregain aztertu eta konparatuz gero, erraz aurkitzen da fenomeno horien gakoa, baina ezingo litzateke sekula hara iritsi teoria historiko-filosofiko orokor baten orotariko giltzarekin, zeinaren bertute gorena historiaz gaindikoa izatean baitatza.

KARL MARX ETA FRIEDRICH ENGELS: ALDERDI KOMUNISTAREN MANIFESTUAREN BIGARREN EDIZIO ERRUSIARRAREN HITZAURREA⁴⁶

Alderdi Komunistaren Manifestuaren errusierazko lehen edizioa, Bakuninek itzulia, 1860ko hamarkadaren hasieran argitaratu zuen *Kolokol*⁴⁷ kazetak. Garai hartan, Mendebaldeak ez zuen bitxikeria literario bat besterik ikusi Manifestuaren errusiar edizio honetan. Egun ezinezkoa litzateke ikuskera hura.

Manifestuaren azken atalak argi eta garbi erakusten du zein mugatua zen 1847ko abenduan proletarioen mugimenduaren irismena: Oposizioko alderdi ezberdineko komunistek duten jarrera. Hemen falta dira, preseski, Errusia eta Estatu Batuak. Errusia Europa osoko erreazioaren azken erreserba handia zeneko garaia zen; Estatu Batuek Europako indar proletarioaren soberakinak immigrazio bidez xurgatzen zituzteneko garaia.

46 P. Lavroven eskariz idatzia, Errusieraz argitaratua izan zen lehen aldiz 1882ko otsailaren 5ean *Narodnaya Volya*-n, Herriaren Gogoaren aldizkari klandestinoaren 8-9 zenbakian. Lehen argitalpen alemaniarra *Der Sozialdemokrat* aldizkarian, 16. zk. (1882ko apirila). Testua Patrick Camillerrek itzuli zuen *Marx-Engels-Werke*-n argitaratutako jatorrizko alemanetik (K. Marx eta F. Engels, Berlin, 1962, 19. liburukia, 295-6 or.).

47 *Kolokol* (Kanpaia), A. Herzenek 1857-1869 bitartean argitaratutako Errusiako oposizio erradikalaren egunkaria.

Bi herrialdeek lehengaiez hornitzen zuten Europa eta, aldi berean, haren industria ekoizpenaren merkatu ere baziren. Gisa batez edo bestez, bi herrialdeak ziren Europako jadaneko ordenaren zutabeak.

Zein desberdinak diren gauzak gaur egun! Hain zuzen ere, Europako immigrazioa izan zen Ipar Amerikan eskala handiko nekazaritza-ekoizpena ahalbidetu zuena, eta haren lehia Europako lur-jabetza handi zein txikiaren oinarriak astintzen ari da. Era berean, Estatu Batuei aukera eman zien bere baliabide industrial kolosalak ustiatzeko, halako indar eta eskalan, ezen Mendebaldeko Europak eta bereziki Ingalaterrak ordura arte izan zuten industria-monopolioa laster amaituko baita. Bi gertaera horiek modu iraultzailean eragiten diote Amerikari berari. Nekazarien sail txiki eta ertainak, sistema politiko osoa sostengatzen dutenak, pixkanaka erortzen ari dira etxalde erraldoien lehian eta, bizkitartean, lehen aldiz garatzen hasi dira industrialdeetan alimaleko proletargoa eta sekulako kapital-kontzentrazioa.

Orain Errusian! 1848-49ko iraultzan, Europako printzeek ez ezik, Europako burgesek ere errusiar esku-hartzea kausitu zuten justuki iratzartzen ari zen proletargotik libratzeko modu bakar gisa. Tsarra europar erreakzioaren buruzagi izendatua izan zen. Gaur egun Gatchina⁴⁸-n dago, iraultzaren gerra-presoa, eta Errusiak osatzen du ekintza iraultzailearen abangoardia Europan.

Manifestu Komunistak jabetza burges modernoaren desegite saihestezina iragartzea zuen helburu. Errusian, ordea, ikusten dugu azkar loratzen ari den kapitalismoaren iruzurra eta berriki garatzen ari den

48 San Petersburgotik gertu zegoen jauregia, tarte batez Alexandro III.aren egoitza izan zena, Herriaren Gogoaren eraso gehiagoren beldurrez.

burgesiaren lur-jabetza bekoz beko daudela lurraldearen gehiengo zabalean hedaturik dagoen laborarien jabetza komunalarekin. Horrek honako galdera dakar: Errusiako *obshchina*,⁴⁹ lurraren jatorrizko jabetza komunalaren forma, nahiz eta biziki higatua izan, zuzenean igaro liteke jabetza komunalaren forma gorenera, forma komunistara? Ala Mendebaldearen bilakaera historikoak markatzen duen desegite-prozesu beretik igaro behar al du lehenik?

Gaur egun erantzun posible bakarra dago. Errusiako iraultza Mendebaldeko iraultza proletarioaren ikur bihurtzen bada, eta biak elkarren osagarri badira, orduan Errusiako laborarien lur-jabetza komunala garapen komunistaren abiapuntu izan daiteke.

Karl Marx eta F. Engels⁵⁰

Londres, 1882ko urtarrilaren 21a

49 Errusiako nekazaritza-komuna, errusieraz idatzia, egileek latinezko alfabetora letraldatua.

50 Sinadura jatorrizkoan bezala mantendu da, hau da, Engelsek inizialarekin soilik sinatzen zuen.

Chère citoyenne,

Une malade de nerfs qui n'arrête jamais depuis les derniers de Noël, n'a
complètement répondu plus tôt à votre lettre du 10^{ème} février. Je regrette de ne pas
pouvoir vous donner une réponse immédiate à l'endroit de la question
que vous m'avez faite d'envoyer de la viande. Regardez vous que j'ai déjà promis
un travail sur le même sujet au Comité de St. Louisbourg. Cependant j'espère que
quelques lignes suffiront de vous laisser au moins une idée de la situation de
l'égard de ma santé et de mes idées.

En analysant les phases de la production capitaliste, j'étais
venu à la conclusion que le système capitaliste engendrait la disparition radicale de la production
et des moyens de production. La base de toute cette évolution c'est l'effacement
de la propriété des instruments de production. Elle ne s'est encore accomplie d'une manière
radicale qu'en Angleterre. Mais dans les autres pays de l'Europe occidentale
et particulièrement la même communauté (de l'Empire, d'Allemagne, etc.)
de la propriété historique de ce mouvement est donc apparemment restreinte
aux payes de l'Europe occidentale de par où de cette restriction est indiquée
dans ce journal du 10^{ème} 1844.

La propriété privée, fondée sur le travail personnel ou sur le travail suppléé par
la propriété privée capitaliste, fondée sur l'exploitation du travail étranger
au salariat. (R. 10. 1844)

Dans ce mouvement occidental il s'agit donc de la transformation d'une
forme de propriété privée en une autre forme de propriété privée. Chez
les peuples riches on avait un contraire à transformer leur propriété
commune en propriété privée.

Parce que dans le capital, celle des raisons qui sont en contre la
richesse de la commune rurale, mais l'élite sociale qui s'en est faite, et dont
j'ai cherché les raisons dans les sources indiquées, m'a convaincu que cette
commune est le point d'appui de la régénération sociale en Europe, mais afin
qu'elle puisse fonctionner comme tel, il faut lui donner l'élément des
influences défectueuses qui laissent de la commune et de la commune
autres les conditions normales d'un développement spontané.

Vos dévoués, chers citoyens
Vos amis pour toujours

Karl Marx

